

"Palestinarraren egoera jasanezina da, eta edozein momentutan lehertu daiteke"

Palestinarraren sinboloetako bat den olibondoaren gerizpean, Sarrionandiaren testu bat arabieraz idatzita topatu du Anis Hawari errefuxiatu palestinarra, lurretan. "Euren eztabaida ez da entzuten. Isiltasuna luzea da", irakurri dio kazetariari. Hain justu, Palestinan bizi den egoeraren aurrean nazioartean isiltasuna mantentzen dela salatu du. Israelek behartutako ihesalditik 70 urte bete diren honetan, egoera larritu egin da. • 2-3



Herri galdeketa bat egin gura dute trenbideko lurren etorkizunari buruz

Durango | Trenbideak libre utzitako lurretan zer egin erabakitzeko, herri galdeketa bat egitea eskatu du plataforma berri batek. 2.300 sinadura batu beharko dituztela uste dute, udalean proposamena aurkezteko. • 4. orrialdea



Australiara joan da Emakumeen Birako txapela

Iurreta | Amanda Spratt-ek Urkiolako etapan erakustaldia emanda irabazi du Emakumeen Bira. • 2. orrialdea



IURRETA

Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta

AURREMATRIKULA
Ekaina

MATRIKULA
Uztaila

Euskaraz ikasi eta lan egin!



“Haifako etxeko giltzak eta eskriturak gordeta dauzkagu, baina suntsituta dago”

Israelen okupazioaren ondorioz ihes egin behar izan zuten milaka familiatako batekoa da Anis Hawari durangarra; egunotako gertakari odoltsuez eta testuinguru politikoaz hitz egin du

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Azken egunetan egoera larritu egin da Palestinan, Nakbaren (palestinaren ihesa) eta Israelen sorreraren 70. urtemugan AEBek Jerusalem enbaxada zabaltu dutenean. Palestinar zibilen mobilizazioei tiroz erantzun die Israelgo armadak; ehundik gora dira hildakoak, eta milaka zaurituak. Umeak ere bai asko. Arduraz berba egin du Anis Hawarik, Palestinaren aldeko Biladi elkarteko kide den errefuxiatu durangarrak. Konponbiderako gakoak ere argitu ditu.

1948ko judu sionisten okupazioagaz hasi zen palestinaren exilioa, eta baita zure familiarena ere.

Nire gurasoak Haifakoak ziren sortzez. Aitak trenbidean egiten zuen lan. Etorbizun handiko estatua zen Palestina, Ekialde Hurbileko erreferentzia. Haifa Mediterraneoko portu garrantzitsua zen, eta Bigarren Mundu Gerran oraindik eta gehiago. 1947an, Europako juduez betetako itsasontziak heltzen zirela ikusten hasi ziren. Palestinan estatu sionista bat sortzeko ideiaz bideratu zituzten. Juduek Haifako goialdeak okupatu zituzten, eta handik bonbak jaurtitzeko hasi ziren palestinarrak zibilen aurka. Jendea ihesean hasi zen porturantz eta ingeles kolonialistek prest zituzten itsasontziak haientzat. Nire gurasoak arrantzako itsasontzi batean sartu zituzten, eta Libanorantz eramanez. Zorionez, Libanon sendia geneukan, eta denbora batez eurek hartu gintuzten etxean.

Beraz, ez zinen Palestinan jaio.

Libanoarra izan arren, nire jatorria palestinarra da. Gainera, niretzat dena da bat, dena da lur bera: Libano, Palestina, Jordania, Siria... Ekonomia ikastera etorri nintzen hona, andre euskalduna ezagutu eta hemen geratu nintzen. Nire anaia bat Jordanian dago, beste bat Libanon, beste bat AEBetan eta

azkena Kanadan. Hiru mutil eta neska bi gara.

Bueltatu al zara inoiz Palestinara?

Haifako etxeko giltzak eta eskriturak gordeta dauzkagu, baina suntsituta dago. Palestinara joan izan naiz noizbait, turista moduan, Espainiako nortasun agiriagaz, eta Haifako etxearen hondarrak hantxe daude oraindik. Nire gurasoak ezin izan ziren bueltatu.

“**Juduek Haifako goialdeak okupatu zituzten, eta handik bonbak jaurtitzeko hasi ziren**”

“**6 milioi errefuxiatu gaude Palestinatik kanpo, eta 2-3 milioi kanpamentuetan bizi dira**”

Juduak eta palestinarrak borrokan. Beti izan al da horrela?

Ordura arte, Palestinako musulmanak eta juduak elkarregaz bizi ziren, elkarregaz ospatzen zituzten jaiak. Nire gurasoek auzokide juduak zituzten, eta, adibidez, eurekin ospatuz bazkaltzen zuten. Judu guztiak ez dira europarrak, palestinarrak ere badaude, beti han bizi izan direnak. Izan ere, judaismoa erlijioa da, ez etnia. Sionismoak bihurtu du etnia. Etorri zirenak baztertzeko ideiaz etorri ziren. Ingalaterrak estatu sionista inkubatu zuen, armak emanez, armada sortuz... Israelgo estatu sortu zenean dagoeneko prest zeuden. **Zelan ikusi dituzu azken egunetako gertakariak? Zer aurreikusten duzu?**

Egoera uneoro larritzen doa, oso

gogorra da palestinarentzat. Jasezina da eta edozein momentutan leher daiteke. Mobilizazioek jarraituko dute, eta beste lurralde batzuetara hedatu daitezke, unearen tentsioaren arabera.

Palestinaren mobilizazioak indartu dira, justu Israelen sorreratik 70 urte bete direnean.

1948an 800.000 palestinarrak botatzen Israelera; batzuk Libanora, beste batzuk Jordaniara, Zisjordanian, Egiptora, Siriara, Gazako mugara... Uneotan 6 milioi errefuxiatu gaude Palestinatik kanpo, eta 2-3 milioi errefuxiatuen kanpamentuetan bizi dira. Nazio Batuen Erakundearen 1948ko erresoluzio batek zioen jende horrek etxera bueltatzeko eskubidea zuela, baina ez da inoiz bete. Palestinaren aldarrikapen iraunkor bat da etxera bueltarako eskubidea. Orain, itzulerako martxa sinboliko eta baketsuak hasi dituzte, eskubide hori erreindikatzen. Israelerak, baina, armada bat bailitzan egin die aurre. 100dik gora dira hildakoak, eta kasik 12.000 zaurituak. Astakeria bat da.

Gaza da exilioaren gune latzetako bat, ezta?

Gazan gertatzen ari dena gauza askoren batura da. 365 kilometroko lerro bat da, eta 2 milioi pertsona daude bertan. Munduko dentsitate handiena da. Horietatik gehienak errefuxiatuak dira. 1967an juduak sartu ziren bertan, eta gerora irten arren, setio kriminala dute ezarrita. Jendea apenas sartu eta irtetzen da: ez medikurik, ez ikaslerik, ez gaixorik... Elektrizitatea eta edateko ura falta da. %60-70eko langabezia dago, bonbardaketengatik baliabide urriak daudelako. 10 urtean 3 gerra egon ziren, eta horrek azpiegitura eskasak utzi zituen. Horrez gainera, Europaren eta AEBen isiltasuna gehitu behar da. Horrek egoera are mingarriagoa bihurtzen du.



Anis Hawari Naser

Palestinaren aldeko Biladi elkarteko kidea

Palestina | 1950

Etixerako bueltaz gainera, berezko estatu baten sorrera ere bada palestinaren beste eskari bat.

1947an Palestinaren zatikatzea onartu zuen NBEk, estatu judua eta arabea sortzeko. Okupatzailea izan zen Britainia Handiak ere aitortu zuen estatu palestinarra. Judua sortu dute, adostutakoa bete barik, lurra hedatuta eta palestinarrak botata. Eta palestinarrak ezin izan dute euren sortu. Beraz, estatu hori sortzea da aldarrikapenaren bat, Jerusalem hiriburu dela. Palestinaren garrantzia, munduarentzat, bere kokapen geografikoa da. Ekialdea eta mendebaldea banatzen ditu, eta Afrika eta Euro-

pa ere bai. Ez zen kasualitatea izan Israelen ezarpena leku horretan; Ekialde Hurbila kontrolatzea zen helburua. Eta Jerusalem da Palestina mundu arabiarraz lotzen duen zilbor-hestea.

“**Ez zen kasualitatea izan Israelen ezarpena leku horretan; Ekialde Hurbila kontrolatzea zen helburua**”



Eta orain Trump sartu da, Jerusalem Israelgo hiriburutzat aitortuta...

Trumpek promesa hori egin zuen kanpainan, juduen eta Eliza Ebanjelikoaren botoak lortzeko. Euren mito eta errelatoak dituzte hauek, juduak Jerusalemera bueltatu behar direla esanez. Baina errelato hori ez da egia. NBEk eta Unescok ere sarritan esan izan dute Jerusalemgo leku santuak musulmanenak direla, palestinarrenak. Autoritate palestinarren eta Israelen arteko elkarrizketak AEBek babestu zituzten, eta balizko akordio horiek desnaturalizatzen dabil Trump. Amerikarrek agindu gura dute Ekialde Hurbilean. Gainera,

AEBek errefuxiatuei laguntza emateko sortu zuten UNRWA erakundeari ere dirua murrizten dabil. Kanpoan bizi garen palestinarrenak kanpoan bizi eta disolbatu gaitzen gura du.

“
Bertako baliabideak eskuratu gura dituzte kolonialistek, eta Israel horretarako proiektu bat da”

Zure ustez, zergatik dute hainbesteko interesa?

Herrialde kolonialisten eta proiektu arabe baten arteko talka dago Palestinan. Bertako baliabideak eskuratu gura dituzte kolonialistek, eta Israel horretarako proiektu bat da. Belikoa, hedatzailea. Sirian, Libian, Iraken, Yemenen... gertatzen ari denagaz, herrialde horien Palestinarekiko babesa ahultzen dihardute. Ekialde Hurbil osoa bereganatu gura dute, eta Errusia eta Txinaren sarrera saihestu. Ukrainan egin duten lez, baina orain hegoaldetik.

Gazaz aparte, Zisjordanian ere arazoak egon dira lurrekin...

Zisjordania Jordaniaren menpe geratu zen 1948an, eta gerora, Israeliek okupatu zuen 1967an. Ordutik, palestinarrei lurra jaten ari da, kokalekuen bidez. Jendea larri bizi da, euren lurretatik botako dituzten beldurrez. Bestalde, Israel

“
AEBek errefuxiatuei laguntza emateko sortu zuten UNRWA erakundeari ere dirua murrizten dabil Trump”

sortu zenean, palestinarren zati txiki bat, 200.000 lagun, hango mugetan geratu zen. Hasieran, erregimen militarpean egon ziren, eta gero nazionalitate israeldarra eman zieten. Baina apartheid politika garatu zuten eurekin, Hegoafrikan lez. Eskubideak kentzen dizkiete.

Etteratzea, estatua eta Jerusalem hiriburu. Horiek dira konponbiderako giltzak?

Bai. Gainera, egiazko bakea egoteko, Israel sionizaziotik irten behar da. Denentzat izango den estatu baten barruan bizitzera heldu behar dira, multierlijiosoa, multietnikoa eta multinazionala.



Maristak ikastetxean egindako aurkezpenak ikusmina sortu zuen. 100 lagunetik gora batu ziren, eta batzuek galderak egin zituzten.

Sinadurak batzen hasiko dira Durangon, libre geratu diren trenbideko lurri buruzko herri galdeketa bat eskatzeko

Proiektuaren inguruko "informazio kontrajarriak" zabaldu izan direla kritikatu dute Erabaki plataformako kideek; galdeketa eskatu ahal izateko, 2.300 sinadura beharko dituzte

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durango beste herri bat da 2012ko abenduan trena lurperatu zutenetik. Hala ere, sei urte pasatu dira, eta oraindik ere asko dago egiteko. Trenbideak zuen ibilbideak hesituta jarraitzen du eremu askotan, eta estazio zaharra zegoen espazio zabalean egingo denaz ez dago ziurtasunik. 2006an eremurako landutako plan bereziak bost etxe dorre -554 etxe guztira- jasotzen zituen, aisialdirako guneez gainera. Bada, proiektu horren aurka dauden herritar batzuek Erabaki plataforma sortu dute, eta eremu horretan egingo dena herri galdeketa baten bidez erabakitzea gura dute.

Horretarako, sinadura bilketa hasiko dute; gutxienez 2.300 beharko dituztela uste dute, proposame-

na udalean aurkezteko. Aparte, galdeketa egin bitartean proiektua geratzea eskatu dute.

Udalak lurren birpartzelazioa onartu du aurrean, eta lursail bat etxeak eraiki ahal izateko moduan

2006an landutako plan bereziak bost etxe dorre -554 etxe guztira- jasotzen zituen

Erabakikoek diote 2006ko plana ez dela "durangarren beharrianetara egokitzen"

izendatu du, nahiz eta proiektuaren zehaztasunik ez egon. Hortik dator plataformaren bultzatzaileen kezka. Eguaztenean aurkeztu zuten euren burua, Maristak ikastetxean emandako prentsaurrekoan. Proiektuaren inguruan "informazio kontrajarriak" jaso izan direla kritikatu dute. "Alde batetik, berdeguneak eta parkeak egingo direla entzuten da. Bestetik, orain urte asko onartu zen proiektua daukagu". ANBOTOk udalera eta ETSra jo du, baina ez du erantzunik jaso.

"Etokizuna baldintzatu"

Plataformakoek azaldu dute "arduraz" begiratzen diotela eremuaren aldaketari. "Durangoren erdialdean libre geratzen den azkenengo eremuaren aurrean gaude, eta

bertan egingo denak betiko baldintzatuko du etorkizuneko Durango".

Proiektuari kritika

Erabakikoek diote 2006ko plana ez dela "durangarren beharrianetara" egokitzen gaur egun. "Gizartea aldatu egiten da. Horregatik, uste dugu orduko plana gelditu beharra dagoela". Gainera, etxeetarako errepide berriak "Durango erdibitu" eta Ezkurdi autoz beteko duela ohartarazi dute. Kontrara, espazio horretan berdeguneak edo jolastokia eraikitzeak ideiak bota dituzte.

Plataformako kideek iragarri dute datozen asteetan hainbat lekutan ipiniko dituztela sinadurak batzeko mahaiak, eta ekainaren 17an jai bat antolatuko dutela asmo horri bultzada handi bat emateko.

Erabilera erlijiosoko lurra

Udaleko apirilko osoko bilkuran ere eztabaidagai izan zen trenbideko lurren gaia, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak sustatuta. 2006ko planaren maketa Durangora ekartzea eskatu zuten, baina, horren ordez, Eusko Jaurlaritzari egungo asmoen informazioa eskatzea onartu zuen udalbatzak. Bestalde, espazioan erabilera erlijiosorako lursail bat ere aurreikusen da, eta 2013an bezala, funtzio hori kentzea onartu zuten alderdi guztiek, PPK kenduta.

Durangoko institutuaren 50. urtemugako jaira batzeko deia egin dute

DURANGO • M.O.

Fray Juan Zumarraga institutua 50. urtemuga ospatzen dabil, eta ekainaren 16an izango da jaialdi nagusia. Bazkari handi bat egin gura dute Platerue-na kafe antzokian, eta bertan parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Beraz, institutuagaz hartu-emana eduki duten ikasle, irakasle, guraso eta abarrak elkartzeko da asmoa. Ekainaren 1a da apuntatzeko azken eguna, eta kontu korrante bat zabaldu dute antolatzaileek.

Bazkarirako txartelak 30 euro balioko du eta horren baitan urtemugarako bereziki argitaratu duten liburu bat oparitu dute, hainbat protagonistaren esperientziak jasotzen dituen.



Larrinagatxu erreka.

Larrinagatxu errekan egindako isuria salatu dute

DURANGO • M.O.

Larrinagatxu errekan "naturaren aurkako atentatua" egin dutela salatu du Herriaren Eskubideak. URA agentzia publikoan salaketa ipini du, erreka Aramotzen duen ibilbidean isuri kutsagarriak egin direla uste duelako. "URari naturaren aurkako horrelako atentatuez informatzeaz aparte, ikertzea eta berriro ez gertatzeko neurriak hartzea exijitzen diogu", esan dute prentsa oharrean.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko maiatzaren 25a
16. urtea - 722. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko areto-futboleko taldeek bat egin dute, aniztasun funtzionalaren aldeko biharko jaialdian parte hartzeko

Geu Beko kideekin jokatu dute Mendibeltz, Ezkurdi, Gu Lagunak, Durangoko, Sasikoa, Kultural eta Racing Tolostokoek

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Geu Bek, Rio de Orok, Angelman Sindromearen Elkarteak eta udalak antolatutako Aniztasun Funtzionalaren Aldeko Jaialdiak elkartasunez bustiko du bihar Durango. Ezgaitasunen gainera, pertsona guztien gaitasunei balioa emateko egun bat izango da. 1.200 lagun elkartuko dira Landako Gunean egingo duten herri bazkarian, egun osoan zehar tailerrak prestatuko dituzte, eta 18:00etan Luhartzegaz jarraituko du jaiak. Gainera, herriko elkarte asko inplikatu dira.

Areto-futbolekoena da adibideetako bat. Bihar, 10:00etan, Landakoko kiroldegian partidua jokatu dute, Durangoko hainbat klubetako jokalariek osatutako taldeekin: Mendibeltz, Ezkurdi,



Luisma Reyes, aurrean ezkerrean, partidua antolatzeko martitzenean egindako batzarraren osteko talde argazkian.

Gu Lagunak, Durangoko, Sasikoa, Kulturala eta Racing Tolosto. Gainera, eurekin batera nahastuta, Geu Beko futbolariak ere parte hartuko dute.

Mendibeltz eta Haizea

Mendibeltzen kasua berezia da, angelman sindromea duen Haizea ume durangarraren aitak, Luisma Reyesek, bertan jokatzeko duelako.

Taldekideak ekintza askotan inplikatzeko ekarri du egoera horrek. "Gai honek gertutik ukitzen gaitu. Eta lagundu ahal dugun edozein ekintzetan, hortxe gaude", dio Ed-

gar San Millan taldekideak. Eneko Sampedrok ekintzetako batzuk gogoratu ditu: "Angelman Sindromearen Elkarteak Landakon antolatu zuen jaialdian barran laguntzen egon ginen, igerilekuetan paella

Sampedro: "Gure helburua ondo pasatzea da, baina ez da futbol klub huts bat"

lehiaketa egin zenean ere lagundu genuen, eta futbito maratonia ere bai. Gure helburua ondo pasatzea da, baina ez da futbol klub huts bat, zerbait gehiago gura dugu".

Eurak ere bozgorailu

San Millanek dio Haizea Reyes ezagutu arte ez zeukala angelman sindromearen inguruko informazioirik, eta gaur egun eurak bihurtu dira gaiaren bozgorailuetako bat. "Jendeak galderak egiten dizkigu, eta esplikatzeko saiatzen gara", dio Mendibeltzeko kideak.



Mallabiko Betearte da Gipuzkoako lehiaketara aurkeztu den zabortegei bakarra.

Hondakinak kudeatzeko Bizkaiaren proposamena aztertzen dabil Gipuzkoa

Hondakinak esleipena atzeratu egin du Gipuzkoak, Bizkaiko Aldundiaren alternatibak aztertzeko

MALLABIA • J.D.

Gipuzkoako Aldundiak geratu egin du, momentuz, kudeatu ezin dituen hondakinak nora eraman erabakitzeko esleipen prozedura. Gipuzkoako Hondakinak Kudeaketa erakundeko kontratazio mahaiak ez du lehiaketa publikoko azken gutunazala zabaldu —Betearte da aurkeztu den bakarra— eta Bizkaiko Aldundiaren proposamenak aztertuko dituela iragarri du ohar batean. Ildo horre-

tatik, erakunde bien artean "hartu-eman diskretuak" izaten ari direla azaldu du eta, edozelan ere, "aukera denek zabalik" jarraitzen dutela. Bizkaiko Aldundiak hondakinak Zabalgari biko errauskailura eramatea edo errauskailuren eta Artigaseko zabortegearen artean banatzea proposatzen du.

Gipuzkoako Aldundiak dio Bizkaikoagaz hartu-emanetan dagoela gaia aztertzeko

ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

- Aurrematrikula: ekainaren 4tik 15era
- Matrikula: uztailaren 12tik 18ra

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-Ian Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Logos: AENOR, AENOR, Kudeaketa, Kalitateak 2005, IONET, Fp, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gure Esku Dagoren giza katean parte hartzeko inskripzioak martxan daude Durangaldean

Aste bi baino ez dira falta erabakitze eskubidearen aldeko mobilizazio erraldoia ailegatzeko ekainaren 10ean

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Aste bi baino ez dira falta Gure Esku Dago mugimenduak antolatutako giza katea ailegatzeko, eta Durangaldean martxan daude bertan parte hartu ahal izateko inskripzioak. Erabakitze eskubidearen aldeko taldeak mobilizazio historiko bat egin gura du beste behin, orain lau urteko ekainean egin zuen bezala. *Eman eskua etorkizunari* lemapean, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko ditu pertsonen osatutako kateak. Hemen, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotza zeharkatuko ditu kateak.

Antolatzaileen esanetan, 100.000 lagun inguru beharko dira ibilbidea betetzeko, eta oraindik ba-

Erabakitze eskubidearen aldeko taldeak mobilizazio historiko bat egin gura du

dago apuntatzeko aukera. Datozen egunotan, eskualdean leku ugari-tan ipiniko dituzte mahaiak. Durangon, Andra Marian egongo dira, eguenetan, 19:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara. Abadiñon, eguenero



Zaldibarren giza katearen aurkezpena eta entsegu bat egin zituzten joan zen zapatuan, 120 lagun inguru batuta.

Trañaetxoste kaleko lokalean, zapatu honetan 12:00etatik 14:00etara

Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotza zeharkatuko ditu kateak

Trañabarrenen, eta domekan ordu berean Txanportan. Berrizen, Olakuetan, barikuro 19:00etatik 21:00etara. Elorrion, eguenero 19:00etatik 20:30era Urarkan, barikuro goizetan azokan, barikuro arratsaldetan 19:00etatik 20:30era plazan, eta domeketan 12:30etik 14:00etara plazan. Garaiko plazan eta Iurretako Dantzari plazan,

gaur, 19:00etatik 21:00etara. Mallabian barikuro 18:30etik 20:30era plazan, eta baita bihar ere ordu eta leku berean. Zornotzan, gaur 18:00etatik 20:00etara Luis Urrengoetxeako Gure Esku Dagoren dandan, bihar 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dandan, eta domekan 12:00etatik 14:00etara Politenako arkupeetan.

Atxondoko eskolako jantokian astebeteko plantoa egingo diote catering zerbitzuari



50 umeri jaten emango diote gurasoek.

DURANGALDEA • M.O.

Berton Bertokoa elkarteak ekin-tza ugari prestatu ditu datorren asterako. Bertako eta sasoiko produktuen dastaketak egingo dituzte hainbat eskolatan, eta nabarmentzekoa da Atxondon astebeteko plantoa egingo diotela catering zerbitzuari. Horren orde, gurasoak izango dira sukaldari. 50 ikasle inguru dira eskolan, eta gurasoak badabilta taldeka antolatzen eguneroko menuak bertako eta sasoiko produktuekin osatzeko. Gainera, berbaldiak eta bisitak ere edukiko dituzte.

Bestalde, Berton Bertokoako kideak legebiltzarrean egon ziren joan zen astean, jantoki eredu inguruko batzorde berezian. Ikastetxeek erabaki ahal izateko legea aldatzea eskatu zuten, eta sukaldari ez dagoen lekuetan sukaldea ipintzea.

Ibaizabal eta Zaldai errekek garbitzen jardun dute Juan Orobiogoitiako eta Maiztegiko 153 ikaslek

Ekimenak "edonola botatako hiri-hondakin solidoek ibaietan duten eraginaz sentsibilizatzea" du helburu

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bioaniztasunaren Munduko Eguna-gaz bat eginda, Ibaizabal eta Zaldai ibaietan hondakinak bildu dituzte Iurretako 153 ikaslek. Juan Orobio-

Aurten 26. urtea duen Aztertu programaren eta Eskola 21en barruan jaio zen Ekinaren Eguna

goitiako eta Maiztegiko gaztetxoak aritu dira, seigarren aldia duen Ekinaren Egunean. Aztertu programak, Ingurugelak eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak "ibaiei balioz ohartarazteko" antolatutako ekimena da eta ikas-

leek hondakinak sailkatu eta pisatu egin dituzte, bota aurretik.

Aurten 26. urtea bete duen Aztertu programaren eta Eskola 21en barruan jaio zen Ekinaren Eguna, ikasleak "edonola botatako hiri-hondakin solidoek ibaietan duten eraginaz sentsibilizatze"ko.

Ibaiek garbitzeko lan horietan parte hartu dute Ingurumen sailburuorde Elena Morenok, URako zuzendari nagusi Ernesto Martinez de Cabredok, Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak eta Amankomunazgoko presidente Aitor Lopezek. Ingurumenean eta biodibertsitatean hezteak duen garrantzia nabarmendu dute guztiak.

Joan zen astean Durangoko Fray Juan Zumarraga institutuko ikasleak ere aritu ziren ibaia garbitzen.



Agintariak parte hartu zuten jardunaldian.

Zapatuaz geroztik mural berri batek apaintzen du Izurtzako plaza

IZURTZA • J.D.

Joan zen zapatuan Munduko Loreak ekimena burutu zuten Izurtzan. Aterpetxean bizi diren 24 gazte etorkinak herritarrengana hurreratzeko ekitaldia izan zen. Jai horren barruan,

Berbereen bandera eta ikurrina dira horma irudi berriari gehitu dizkioten osagaietako bi

gazteek plaza ondoko horma batean marraztutako mural berria inauguratu zuten. Berbereen bandera du alde batean, eta ikurrina bestean. Integrazioa eta kultur aniztasuna islatzen ditu muralak.



IURRETA

Tellitu-n udaberrian hasiko gara eraikitzen

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,
bista ederrekin*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Garaitik 32 lagun joan ziren.

100 garaitar eta lantziegarrek berretsi dute senidetza

GARAI • MARKEL ONAINDIA

100 lagun elkartu ziren Garai eta Lantziegoren arteko topaketan. Ofizialki senide diren herri biek ospakizuna egiten dute urtero, eta aurten Lantziegon (Araba) elkartu dira. Bazkarian 100 bat lagunek parte hartu zuten zapatuan; 32 ziren hemendik joandako bisitari garaitarrak.

Herri bakoitzean oroigarri bat dago ipinita senidetza islatzeko, eta han talde argazkia atera zuten denek batera.

Gaur amaituko da Atxondoko igerilekuko taberna esleitzeko lehiaketa

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak maiatzaren 16an zabaldu zuen igerilekuko taberna esleitzeko lehiaketa, eta gaur amaituko da epea. Esleipena bainu denboraldi baterako egingo da eta beste denboraldi bat luzatzeko aukera izango dute esleipendunek. Denboraldiko 400 euroko errenta izango dute.

Bestalde, zerbitzuaren erabilera egokia egiten ez bada, esleipena bertan behera uzteko aukera du udalak.

Elkarte bateko kideak zigortu ditu epaileak, marihuana sail bat landatzearen

ZALDIBAR • A.M.

Eibarko Nelito elkarteak hainbat kideri espetxe zigorra ezarri diete Zaldibarko industria-nabe batean ia 600 marihuana landare edukitzeagatik. Epaia araberan, osasun publikoaren aurkako delitua egin dute. Hala ere, zigorra eten egin du epaileak, zigortuek desintoxicazio terapia batean —opiazioak kontsumitzeko ohitura galtzeko— parte hartzeko konpromisoa hartzen badute. 2015ean abiatu zuten Ertzaintzak operazioa.

"1968an kalean, ikastetxerik barik, geratu ziren ume guztiak hartu genituen Elorrioko Ikastolan"

Datorren zapatuan, ekainak 2, egun osoko jaia izango dute Elorrioko Txintxirri Ikastolaren 50. urteurren jaia ospatzeko



Jose Ramon Urizar eta Manu Igartiburu Txintxirri ikastolaren sortzaileak.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

50 urte beteko dira Elorrioko Txintxirri Ikastola sortu zutenetik. Urteurren hori ospatzeko egun osoko jaialdia egingo dute ekainaren 2an, tartean herri bazkaria. ANBOTOK Jose Ramon Urizar eta Manu Igartiburu sortzaileekin hitz egin du.

Dagoeneko 50 urte igaro dira.

Jose Ramon Urizar: Nork esango zigun guri orain 50 urte gaur hau ospatzen egongo ginela.

Nolakoa izan zen Ikastola sortzeko garai hura?

Manu Igartiburu: Garai oso gogorrak izan ziren. Elorriko Ikastola sortzeko beharrezkoak ikusi genuen, eta kurtsoa hasteko zegoela, herrian zeuden hiru eskolek atek itxi zituzten. Hainbat ume eskolarik barik geratu ziren. Orduan, zenbait ikastetxetako kideak batu eta gestora bat sortzea erabaki genuen, beti ere Ikastolak izango zuen espirituagaz.

J.R.U.: 1968an errepublika garaian eskola nazionalak sortutako lau gela bakarrik zituen Elorriok, eta gainontzeko ume guztiak kalean geratu ziren. Orduan, 1968an kalean, ikastetxerik barik, geratu ziren ume guztiak hartu genituen Elorrioko Ikastolan.

Finantziarioa ere lortu behar izan zuten, beste hainbat gauzen artean.
M.i.: Ez genuen dirurik, eta, orduan, originalak izatea pentsatu genuen. Herrian zeuden fabrika eta

denda guztietara joan ginen gure proiektua azaltzera. Beraz, Ikastola aurrera ateratzeko, egunean langileko pezeta bat emateko eskatu genien enpresei

Zelako erantzuna jaso zuten?

J.R.U.: Erantzuna oso ona izan zen. Herrian proposamena ondo hartu zuten eta horrek finantziarioan asko lagundu zigun.

“

Ezinbesteko bakarra Josune izan zen; berarengatik izan ez balitz, Ikastola ez zen aurrera irtengo"

Hainbat traba ere izan zenituzten.

J.R.U.: Asko. Urte piloan baimenik barik aritu giren. Agintariek ez zioten Ikastolari baimenik eman gura, baina aurrera egin eta orain 50. urteurren ospatuko dugu.

Momenturen batean pentsatu zenuen amore ematea?

M.i.: Bai, pare bat bider batzarretara joan eta utzi egingo genuela esan genien. Baina gainontzeko batzar-kideek zein Ikastolako gurasoek beharrezkoak ginela eta jarraitu egin behar genuela esaten ziguten.
Ezinbestekoak izan zineten orduan?
J.R.U.: Ezinbesteko bakarra Josune Munitxa irakaslea izan zen. Berarengatik izan ez balitz, Ikastola ez zen aurrera irtengo. Beti izango dugu Josune gogoan, baita berak Ikastolarengatik egin zuena ere.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zazpigarren urtez presoek eskubideen aldeko martxa antolatu dute Oka auzo elkarteko kideek Berrizen. Aurtengo aldia ekainaren 2an izango da eta, ohitura bilakatu den

Zazpigarren urtez Berrizko hainbat auzo zeharkatuko dituzte presoek alde

lez, herriko hainbat auzo zeharkatuko dituzte presoek eskubideen alde. Ibilbidea Olakuetan hasiko da, 8:30ean, eta bertan amaituko da.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, martxan parte hartzen dutenek hamaiketako izango dute

Berrizko auzoak batuko ditu presoek eskubideen aldeko martxak, ekainaren 2an

Olakueta plazan hasi eta amaitzen den martxa Oka auzo elkarteko kideek antolatzen dute

Andikoara heltzen direnean: txorizo egosia eta edaria.

Sare Eguna, lurretan

Bestalde, maiatzaren 26an Sare Eguna ospatuko dute lurretan. Goizean zehar hainbat ekintza egongo dira, tartean ekitaldi nagusia, 13:30ean, Dantzari plazan. 15:00etan, bertso bazkarian batuko dira, Askondoko Aterpean. Bertan, Alaia Martinek, Txaber Altubek eta Aitor Bizkarrak abestuko dute.



Iaz egindako martxako argazkia.

Orue eskola, lan merkatuari hamaika erantzun emanez



Amorebieta-Etxanon kokatzen den Orue Eskola Lanbide Heziketako zentroak 10 urte baino gehiago daramatza gizarte arloko profesionalak trebatzen.

Zein da zuen egungo eskaintza?

Orue eskola irabazi asmorik gabeko elkarte bat da eta gizartean eta lan merkatuan sortzen diren beharrezkoak asetzen ahalegin-tzen gara zerbitzu euskaldun baten bidez **etorkizuneko profesionalak garatuz**. Horretarako lau aukera eskaintzen ditugu:

Goi mailako Gizarteratze teknikaria

Goi mailako Administrazio eta finantzetako teknikaria

Psikomotritate integratzailea graduondoa

Etengabeko formakuntza

Gizarteratze arloan lan aukera ugari sortuko ei da.

Goi mailako Gizarteratze tekniko zikloan eskaera asko dago momentu honetan. Egia da, titulazio edo lanpostu "berri" bat dela, baina denbora gutxian bere lekua lortu du gizarte esku-hartzeko profesionalen artean. **Lan esparru zabala du eta pertsonekin hurbiletik lan egiteak** asko erakartzen ditu ikasleak.

Orue eskolak gaur egun bogan dagoen Lanbide Heziketa Duala eskaintzen al du?

Orue eskolan ahalegin handia egiten ari gara ahalik eta ikasle gehien sartu dadin proiektu honetan. Gure ikasleentzat aukera ona da **ikasten dabiltzan bitartean beraien lan esparrua barrutik ezagutzeko**, eta aldi berean, lan merkatuan sartzeko lehen aukera izateko.

Gizarte arloan ez da erraza modalitate hau martxan jartzea boluntariora asko dagoelako bitartean, baina momentu honetan 3 ikasle izango dute aukera FP dualean ikasketak garatzeko. Hurrengo urteei begira espero dugu elkarte gehiagorekin aukerak zabaltzea.

Lehen esan bezala, Orue eskola beti egon da gizarte arloko formakuntzarekin erlazionatuta. Eta orain Goi mailako Administrazio eta finantzak zikloa eskaintzen duzuela ikusten dugu.

Bai. Lehen esan bezala Orue eskolak gizarteko beharrezkoak detektatu eta asetzea du helburu. Gaur egungo gazteei lan merkatuan sartzeko lehen aukera erraztu nahi genien eta horretarako bigarren ziklo bat eskaintzeko aukera eskatu genuen.

Administrazio eta finantza zikloak lan aukera zabala du. Esango nuke gaur egun gizartean sortzen den burokrazia guztia dela medio, **lan aukera gehien duen lanpostuetako bat dela**, batez ere ingelesa menperatuz gero.

Orue eskolak euskaraz eta ingelesez eskaintzen du ziklo hau.

Gure eskolan daukagun eskaintzaren %80a euskaraz da. Gure filosofiaren barnean dago euskal gizartea sustatu nahi izatea eta horretarako oinarritzeko ikusten dugu bide hori euskaraz egitea.

Baina horretaz aparte, gure ikasleek ezagutuko duten gizartean eta lan merkatuan ezinbestekoa da ingelesa ere ondo jakitea, batez ere enpresa munduan. Eta kontuan izanda administraria enpresa bateko zutabe dela, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure

ikasleak prestaturik irtetea gaur egungo lan merkatuaren izaera honetarako.

Orue Eskolan, berezitasun lez adierazten dozue irakasleek lana eta hezkuntza uztartzea.

Bai, puntu hau oso garrantzitsua da guretzat. Orue eskolako **eskaintza eta egiteko guztian** profesionalak ekartzen ditugu gelara gizarteko eta lan esparru desberdinetako errealitatea ahalik eta hurbilen eta erabilgarrien helarazteko gure ikasleei. Hori dela eta, **irakasleak, transmititu behar duten arloko adituak dira**, eta elkarte, profesional eta enpresa asko gonbidatzen ditugu gelara euren esperientziak kontatzera. Hau dela eta, enpresen sare handia sortu dugu.

Zer da enpresen sare hori?

Gurekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta enpresa multzoari, enpresa sarea deitzen diogu. Elkarlan hau hitzaldien bidez, bisiten bidez, proiektu desberdinak sortuz edo hauetan parte hartuz, praktikaldiak garatuz, ikastaroak emanez, edo jardunaldi edo foro desberdinetan parte hartuz egiten da.

Enpresen Sare honek asko errazten digu **elkarrekin beharrezko barrutik ezagutzeko** ere. Orue eskolak, horrela, bere etengabeko formakuntzako ikastaroak beharrezko horietara egokitzen aukera izaten du eta gure ikasleak lan merkatuan benetan behar duten ezagupenekin prestaturik irteten dira.

Etengabeko formakuntza zeri deitzen diozue?

Ikastaro zehatzak eta laburrak dira, 20 ordu ingurukoak. Normalean ziklo edo graduak nahiko orokorrak izaten dira. **Gai guztiak lantzen dira baina ez da egiteko konkretu baten sakontzen. Ikastaro hauek ordea gai konkretu edo egiteko baten inguruan sakondu, hausnartu eta ikasteko aukera ematen digute.**

Orue eskolaren beste berezitasun bat Graduondo bat eskaintzea da. Ez da ohikoa Lanbide Heziketako zentro batek Graduondo bat eskaintzea.

Orue eskolak orain dela 4 urteraino Goi mailako Haur Hezkuntzako teknikari zikloa eskaintzen zuen. Azkeneko urteetan konturatu ginen gure ikasleek ez zutela

lan merkatuan sartzeko aukera handirik titulazio bakar horrekin, beraz beraien curriculuma nola hobetu eta lan merkatuan sartzeko aukerak nola zabaltzeko hasi ginen. Horretarako aukeretako bat Psikomotritatean titulazio bat izatea zen.

Guk Lanbide heziketako zentro lez ezin dugu Graduondoko titulaziorik eman, beraz Unibertsitate bat behar genuen bide-lagun. Horrela ezagutu genuen **Bartzelonako Unibertsitateko IL3 Institutua**, eta beraiekin batera eskaintzen dugu psikomotritate integratzailea graduondoa. Gainera datorren ikasturtean, **Eusko Jaurilaritzaren homologazioa** ere badauka titulazio honen.

Nori dago zuzendua?

Graduondo bat egiteko, berez, hezkuntza arloarekin erlazionatutako gradu, diplomatura edo lizentziatura bat izan behar duzu. Baina kasu honetan, hezkuntza arloarekin erlazionatutako ziklo batekin ere egin daiteke, graduondoa titulua barik psikomotritatean aditua titulua izango duzularik.





Hainbat postu jarriko dituzte plazan.

Doako autobusak Garagardo Azokara joan-etorria egiteko

MAÑARIA • J.D.

Garagardo Azokaren bigarren aldia egingo dute bihar, 18:00etan hasita. Garai Brewing Company, Baobeer, Garagart, La Txika de la Cerveza, Boga eta Txorierrri Garagardoak ekoizleentzako garagardoak egongo dira dastagai. Janari furgoneta bi ere egongo dira. Azokara joateko doako autobusak daude. Durangoko Madalenatik irtengo dira 18:00etan, 20:00etan eta 21:00etan. Bueltarako autobusak 22:30ean eta 23:30ean dira.

Auzo-taxi zerbitzuak 1.500 bidaiatik gora egin ditu 2016an ezarri zenetik

ABADIÑO • A.M.

Ia urte bi bete dira Abadiño-ko Udalak auzo-taxi zerbitzua martxan jarri zuenetik; 1.500 bidaiaria baino gehiago egin ditu zerbitzuak. Baserrirako auzo-taxia. Iñaki Rekalde Turismo, Merkataritza eta Landa Garapen arloko zinegotzia pozik agertu da emaitzagaz. "Jarrirako helburuak betetzen ari dira; herritarren bizi-kalitatea hobetzeko jarri genuen martxan zerbitzua", azaldu du ohar batean.

Hainbat musika talde ekarriko dituzte Gaztetxearen 17. urteurrena ospatzeko

OTXANDIO • J.D.

Hamazazpi urte joan dira Otxandioko Gaztetxea sortu zutenetik eta urteurrena ospatzeko kontzertuak antolatuta dituzte. Ekainaren 2an izango dira, 22:30ean, gaztetxean bertan. Hiru talde ekarriko dituzte. Talde biren izenak ezagunak dira dagoeneko: Bilboko Arrano Pertxa Rap taldea eta Hondarribiko Gorpuzkings eusko trap taldea. Hirugarren taldearen izena ez dute esan, sorpresa izatea gura dutelako.

San Antonion geltoki berria egingo dute eta, oinezkoek barik, autobusak gurutzatuko du bidea

Industrialdeko biribilgune ondoko geltoki berriak Bilborantz zein Durangorantz doazen autobusak hartuko ditu

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Apirilean pertsona bat hil zen Zornotzako San Antonio auzoan, autobusa hartzeko N-634 errepidea gurutzatzen zebilela. Horren aurrean, udala auzotarrekin batzartu da eta denen artean irtenbide bat landu dute.

Autobusa erabiltzen duten gehienek industrialdea dagoen aldera joan behar dute. Azpiegitura asko daude alde horretan: enpresak, ikas-

tako autobusak han geratuko dira. Udalak egingo du obra zibila. "Nagua hasi aurretik amaituta egotea gura genuke", adierazi du Andoni Agirrebeitia alkateak. Aldaketagaz, bidea gurutzatu behar duten gehie-

nei irtenbidea emando diete. Errepidearen alde horretan bizi direnak faltako dira. Horiei begira, honakoa erabaki dute: bidearen beste aldean, tabernatik aurreneko etxebizitzak dauden tokiraino espaloi bat egitea.

Bidea gurutzatzea seguruagoa da puntu horretatik. Gainera, Aldundiari etorkizunerako irtenbide bat lantzeko eskatu diote. Udalaren ustez, biribilgunea eta zebrabidea dira irtenbiderik egokiena.

Zornotzarantz espaloia egingo dute beste aldean bizi direnek errepidea seguruago gurutzatzeko

tola, nagusien egoitza... eta haxe da arazoari emango dioten irtenbidearen oinarria: oinezkoek barik autobusak gurutzatu dezala errepidea. Geltoki berri bat egingo dute industrialdean dagoen biribilgune txikiaren ondoan. Noranzko bie-



Proiektua lantzen ari dira. Ondoren, Aldundiaren baimenak jaso bezain laster esleituko dituzte lanak.

Pintxorik onenak dastatzeko aukera egongo da Jan Alai lehiaketan

Jan Alai lehiaketaren barruan 35 pintxo dastatu daitezke beste hainbeste taberna eta jatetxetan. Domeka iluntzeko sari banaketan aukeratuko dituzte pintxorik onenak



Parte-hartzaileek hiru pintxo probatu behar dituzte gune bakoitzeko.

ZORNOTZA • J.D.

Aurten zazpigarren aldia egingo duen lehiaketan iaz baino hiru ostalari gehiagok parte hartuko dute. Eguerdian, 12:00etatik 15:00etara egongo dira dastagai, eta arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara.

Prezioak pintxoaren egileek zehaztuko dituzte baremo baten barruan: euro baten eta biren artean

Taberna eta jatetxe parte-hartzaileak bost gunetan banatu dituzte. Lehiaketan parte hartzeko, gune bakoitzeko hiru pintxo probatu behar dira eta, horren ostean, puntuazio orria bete. Parte hartzen dutenak 500 euroko zozketan sartuko dira. Sari banaketa domekan egingo dute, 20:00etan, Zelaieta Zentroan.

Aurten pintxoaren prezioa ez da finkoa izango. Parte-hartzaileek erabakiko dute, beti ere, baremo baten barruan: euro baten eta biren artean.

Udalaren eta enpresen arteko hitzarmena, lanik barik daudenei laneratzea errazteko

ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako Udalak Chaves Bilbao, International Bronmetal, Vizcaína de Industria eta Comercio e Ibaitor enprekin lankidetzara hitzarmen bat sinatu du langabeei prestakuntza eman eta, ondoren, haiei lana emateko. Horretarako, herritar langabeei profesionaltasun egiaztatzea lortzeko ikastaroak eskainiko dizkiete.

Enpresek hasierako taldeko parte-hartzaileen %50 kontratatze konpromisoa hartzen

Enpresek hasierako taldeko parte-hartzaileen %50 kontratatze konpromisoa hartu dute

dute, gutxienez 6 hilabeterako lanaldi osoan edota urtebeterako lanaldi erdian. Kontratua prestakuntza amaitu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan egin behar da. Langileak lan kontratu bidez hartuko dira.



Hareek denporak!

1947an Otxandio Alemaniari irabazi zion futbol partidua

Argazkiaren ezkerrean agertzen den futbol taldea alemaniarrez osatuta zegoen. Eskuma aldekoak, berriz, otxandiarrek ziren, Vulcano taldekoak. Zelan jokatu zen partidu kurioso hori?

Hona azalpena. Urte bi lehenago Bigarren Mundu Gerra amaitu zen. Alemaniako soldadu askok, gerra galduta, euren herrialdetik alde egin behar izan zuten. Espainian Franco diktadoreak bizimodua eskaini

zuen eurretako batzuei. Irudiko alemaniarrek Santa Engrazia urtegitik Zeanurira doan lur azpiko tunela egiten lan egiten zuten.

Otxandion futbol-zelai berria egin zutenean, alemaniar haien kontrako partidu bat jokotuta inauguratzea okurritu zitzaizen baten batzuei. Partidua jokatu eta otxandiarrek irabazi zuten, Martin Axperen gol bati esker.

Sei hankako mahaia

Julian Rios
Santiajo
SQ-2D



Entzutea eta jaramon egitea

2018ko maiatzaren azkenetara gaude. Orain hiru urte, herritar batzuk elkartu eta antolatu egin ginen, ia baliabide ekonomikorik eta teknikorik gabe, eta Durangoko Udalan sartzea lortu genuen.

Herriko txoko-bazter guztietakoak ginen, ogibide, militantzia eta adin desberdinetakoak, baina arrazoi indartsu batek batzen gaitu: gure herriko errealitatea ezagutu eta erabakietan parte hartu nahi dugu. Ez dugu eztabaidatik baztertuta egon nahi. Guri entzutea nahi dugu, parte izan nahi dugu.

Hiru urte geroago, herritar talde honetako kideok gogor jarraitzen dugu lanean, instituzioa gardenagoa eta parte-hartzaileagoa egiteko, informazio guztia kaleratuz eta kaleko galdera eta eskaerak instituziora eramanez.

Udala entzuteko gune moduan ikusten dugu, herritarren harrera gune, durangarren interes eta eskubideen defentsarako gune.

Horregatik, herritar moduan, guri entzutea nahi dugu, hainbat gairi buruz: airearen kalitatea, trenbidearen lursaillean egin beharrekoa, larrialdietarako pediatria zerbitzua, zerbitzuak auzoetan, TAO, OHZ, auto harrapaketak eta abar. Azken batean, instituzioak jendearen zerbitzura nahi ditugu.

Amaitu dira bunker itxurako instituzioak, alderdi eta lagunartekoenak. Jendearen garaia da. Durangarrak animatu nahi ditugu, eurei entzuteko eta eurei jaramon egiteko eskatzen jarraitu dezaten.

*Erredakzioan itzulia

Durungaldea asteen

Neberondon gizon batek neskak jazarri dituela salatu dute, eta Ertzaintza bere bila dabil

Durango I Sare sozialetan hedatu den mezuak dio, Neberondo inguruetan gizon bat nesken aurrean prakak bajatzen eta nesken atzetik ibili dela azken egunetan. Ertzaintzak baieztatu du salaketa bat jaso zuela atzo, eta ikertzen diharduela. Gizon horren bila dabilta.

Ertzaintzak dio exhibizionismoagatik jaso duela salaketa, baina oraindik ez dagoela argi zein delitu egotzi ahal izango zaion gizonari.

Gerbas Elgoibarren agertu da

Abadiño I Abadiñoako San Trokaz jaiak agurtu ostean, hegan joan zen domekan Gerbas. Urtero legez, mundu zabalean zehar hegaz joateko asmoa zuen Gerbasek; Untzillax aldera jo zuen hasiera batean, baina buelta erdi eman, eta Gipuzkoa aldean amaitu zuen bidaiak. Abadiñon bizi den Ion Arrietak Elgoibarren aurkitu zuen, astelehenean, beharretik irten ostean.



Harpidedunentzako lege oharra

Harpidedunei oharrematen diegu datu pertsonalen babesaren indarrean dagoen legeria eta arautegiari egokitzen gabiltzala. Hori dela eta, adierazten diegu:

Datuen konfidentzialtasuna eta babesa: Durangaldeko Herri Komunikabideak elkarteak datu pertsonalen fitxategi automatizatu bat dauka elkarteak sortua eta bere ardurapekoa, harpidedunek emandako datu pertsonalekin, xede duena harpidedunekin harremana mantentzea eta kudeatzea, eta gure zerbitzua eskaintzea. **Datuen zehaztasuna eta egiazkotasuna:** Harpideduna da ematen dituen datuen zehaztasunen eta egiazkotasunaren arduradun bakarra. Harpidedunek emandako datu pertsonalen zehaztasuna, indarraldia eta egiazkotasunak bermatzen dituzte eta datu horiengandik eratorri ahal den erantzukizuna bere egiten dute, kasu guztietan, eta behar bezala gaurkotuta mantentzeko konpromisoa hartzen dute. **Hirugarrenei datuak ematea:** Durangaldeko Herri Komunikabideak elkarteak ez dizkio datuak hirugarren bati utzi. Datuak uztea beharrezkoa balitz, harpidedunei bere datuak uzteko berariazko baimena eskatuko lioke. **Datuak ikusteko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatze, ezeztatze eta aurkatzeko eskubidea nola gauzatu:** Harpidedunek datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko, mugatzeko, ezabatze, ezeztatze eta aurkatzeko eskubidea gauzatu ahal izateko, eskaerak bidali ahal dituzte Durangoko Herri Komunikabideak elkartera, astekaria@anboto.org edo posta arruntez Bixente Kapanaga 9 - PK 48215 Iurreta, Datuen babesa jarriz, NANren kopia batekin. **Segurtasun neurriak:** Durangaldeko Herri Komunikabideak legez eskatzen diren datu pertsonalen babeserako segurtasun mailak hartu ditu, eta ahaleginak egiten ditu bere esku dauden gainerako neurri eta baliabide teknikoak jartzeko, ez dadin gertatu emandako datu pertsonalak galdu daitezela, oker erabili daitezela, alda daitezela, baimenik gabe erabili daitezela edo lapurtu daitezela. **Onarpena eta baimena:** Ohar honen bitartez harpidedunei jakinarazi nahi diegu datu pertsonalen baldintzen gaineko informazioa eman diegula, eta onarpena eta baimena ematen dituela, eta besterik esan ezean, Durangaldeko Herri Komunikabideak elkartearik baimena ematen diotela datu pertsonalen tratamendu automatizatua egin dezan Datu Pertsonalen Babeserako Politika honetan aipatutako xedeetarako.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

hitz #salduenak
artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

1# AZALA ERRE Danele Sarrigarte Susa
2# NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO Kattalin Miner Elkar
3# BIHOTZ HANDIEGIA Eider Rodriguez Susa

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak
Betikoak flexografia
946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Sokatira

EUSKADIKO TXAPELKETA
BERRIZ :: Maiatzak 26 (17:30)

Euskadiko Lur Gaineko Txapelketa jokatuko dute Berrizburun

640 kiloko txapelketa izango da, Berrizen jokatzen den bigarrena, iazkoaren ostean. Getxo, Akelarre, Goiherri, Gaztedi A, B eta C eta Mutriku lehiatuko dira. Emakumeek eta gizonek osatutako talde mistoek ere parte hartuko dute sokatira jardunaldian.

Maiatzaren 25ean

ELORRIO antzerkia
San Urbano ospakizunak,
12:00etan, Berrion.

ATXONDO hitzaldia
'Solosaldiri librea' Jakoba
Errekondogaz, 17:00etan,
Herri eskolan.

ELORRIO hitzaldia
'Siriako gerra,
nazioarteko
botereguneen erdian'
hitzaldia Hegoako
Victor Pozasen eskutik,
19:00etan, Iturri kultur
etxean.

DURANGO antzezlan
'Heriotza Bikoitza (Doble
Malta)' antzezlan,
20:00etan, San Agustin
kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'Amor Oscuro (Sonetos)'
antzezlan, 20:30etan,
Arriolan.

Maiatzaren 26an

DURANGO deialdia
'Ezgaitasun Eguna'.
Kilometro bateko
lasterketa herrikoia,
09:45ean, udaletxetik
irtenda, areto-futbola,
10:00etan, Landako
kiroldegian, tailerrak
eta zirkuitu egokituak,
10:30-13:00 bitartean,
dantza erakustaldia,
13:00etan, bazkari
herrikoia, 14:30ean,
Landako Gunean, bertso
saioa, 17:00etan, Luhartz,
18:00etan.

IURRETA deialdia
'Sare Eguna'. Mural
margoketa, goizean zehar,
mikro irekia+ekitaldia,
13:30etan, Dantzari plazan;
bertso bazkaria Alaia
Martin, Txaber Altube
eta Aitor Bizkarragaz,
15:00etan, Askondoko
aterpean.



ABADIÑO bertsolaritza
Bizkaiko bertsolari
txapelketako udabarri
faseko azken saioa:
Arkaitz Zipitriak, Asier
Urkizak, Eneko Arratek,
Gurutze Uruburuk,
Ibon Larrazabalek eta
Mikel Aiartzaguenak
egingo dute bertsoan,
17:30etan, Errota kultur
etxean.

ELORRIO dantza
Besaide dantza
taldearen 50. urteurren
ospakizun jaia, egun
osoan zehar.

MAÑARIA jaia
'Garagardo Azoka'.
Garagardo artisauen
dastaketa gidatuak,
18:00etan, plazan;
Elortegi Anayak, Mud
Candies eta Ou Mama
taldeen kontzertuak,
dastaketa gidatuen ostean,
plazan.

BERRIZ musika
Tooth eta Tano! taldeen
kontzertua, 22:30etan,
Hiltegiaren.

Maiatzaren 27an

DURANGO musika
Tabira musika bandaren
eta Durangoko
Orfeoiaren kontzertua,
13:00etan, Andra Mariko
elizpean.

Maiatzaren 25etik 27ra

ZORNOTZA gastronomia
VII. Jan Alai pintxo
txapelketa, asteburu
osoan zehar, Zornotzan.

Maiatzaren 30ean

ELORRIO hitzaldia
'Diru-sarrerak
bermatzeko errenta:
Zer da, nola kudeatzen
da?' hitzaldia Lanbideko
Juan Ibarretxeren eta
Bizkaiko Gurutze Gorriko
Maria Talaveraren
eskutik, 19:00etan, Iturri
kultur etxean.



Ainara Legardon

KONTZERTUA
BERRIZ :: MAIATZAK 25

Ainara Legardon musikari bilbotarra Berrizko Kultur Etxera dator gaur (22:00), azken lana aurkeztera. Formatu berezian egingo du: 360 graduako eszenaratzean. Bera eta publikoa elkarregaz egongo dira agertokian.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

PENTSIO DUINAK eskatzeko manifestazioa

GIZARTEA • Bihar, hilak 26, pentsiodunen elkarteek deituta, manifestazio nazionala egingo dute Bilbon, 18:00etan. Jesusen Bihotza plazan hasita. Bertara joateko deia egin diete herritarrei. Horrez gainera, astelehnetako elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela iragarri dute pentsio duinen aldeko borrokan dabilzan nagusiek.



Maiatzeko agenda



- 25** **“IURRETAKO XV.LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA”**
13:30 DBH, BTX eta Helduak
15:00 Lehen Hezkuntza
19:00 Helduentzako ipuin kontalaria
- 27** **“ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA IKUSTEKO IRTEERA”**
7:30 IRTEERA Andaparapen kotxez joateko (Iurretako eleiza atzean)
IBILIBIDEA: Arantzazutik Urbiara joango gara nahi fuenak gero Aizkorri aldera igotzeko
- 28** **“PAPEREZKO HEGOAK: HAURRENTZAKO IRAKURKETA KLUBA”**
18:00 Ikasturte bukaerako jaialdi literarioa



Folklorearen eta kulturaren topagune bilakatuko da Durango

EUSKAL JAI I XXI. aldiz, Euskal Jaiak egingo dira Durangon; ospakizunak ekainaren 17ra arte iraungo du. Jaiak 1998an antolatu zen lehenbizikoz, eta tokiko kultura sustatzea zuen helburu. Hartara, herriko elkarten lanaren erakusle hobera bilakatuko zen Durango. Urtez urte, ekitaldien zein parte hartutako elkarten kopuruak gora egin du. Aurten, 27 taldek parte hartuko dute egitarauan. Esaterako, Bizidun nagusien elkarteak ere bat egin du, lehenbizikoz, Euskal Jaiekin. Ekainaren 8rako nagusientzako mendi irteera antolatu dute, eta ekainaren 12rako 'Euskal baserriaren garapena' hitzaldia; Arte eta Historia museoan izango da.

Maiatzak 25

Eskolarteko X. pintura lehiaketaren erakusketa, Ezkurdiko erakusketa aretoan, 18:00etan.

Esku pilota eskolako haurren txapelketako pilota partiduak, 18:30etan.

IX. 'Peter' memorialeko pilota partiduak, 19:30etan.

'Heriotza Bikoitza' antzezlanak San Agustinen, 20:00etan.

Maiatzak 26

XVII. zesta punta partiduak, Jai Alai pilotalekuan. 18:00etan.

Maiatzaren 31n

DURANGO musika
Soinua musika akademiako ikasleen kontzertua, 18:30ean, San Agustin kulturgunean.

DURANGO hitzaldia
'Arqueología feminista: la materialización de la desigualdad' hitzaldia **Aitziber Gonzalez**en eskutik, 19:00etan, Etxezarreta jauregian.

Ekainaren 1ean

DURANGO kirola
Esku pilota eskolako haurren txapelketa, 18:30ean, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.

DURANGO kirola
'IX Peter Memoriale' jaialdiko final erdiak, 19:30ean, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.

DURANGO musika
'Michael Reloaded' ikuskizuna, 20:00etan, Plateruenean.

Ekainaren 2an

DURANGO kirola
XVII. Zesta punta txapelketako finalurrekoak, 18:00etan, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.



Tooth hirukote gernikarrak Berrizko Hiltexen kontzertua eskainiko du Tano kataluniarregaz batera, zapatuan.

DURANGO dantzak
XXXV. Euskal Dantzen Jaialdia Zuberoko Muskildigaz eta Tronperri dantza taldeagaz, 19:30ean, Andra Mariko elizpean.

DURANGO musika
Kontzertua Karrantzako eta Zornotzako abesbatzekin eta Durangoko Orfeoiagaz, 20:15ean, Santa Anan.

ELORRIO antzerkia
Durungaldeko V. Kopla Txapelketa, 22:00etan, gaztetxean.

Ekainaren 3an

DURANGO musika
'Julene Azpeitia' sari banaketa, 12:00etan, Plateruenean.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

:: Durango ZUGAZA

• **Han Solo: Una Historia de Star Wars**

barikua 25: 19:15/22:00
zapatua 26: 16:45/19:30/22:30
domeka 27: 17:30/20:30
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguzatena 30: 20:00

• **El Doctor de la Felicidad**

barikua 25: 19:30/22:00
zapatua 26: 19:30/22:30
domeka 27: 19:00/21:15
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguzatena 30: 20:00 0

• **El Taller de Escritura**

barikua 25: 19:30
zapatua 26: 19:30
domeka 27: 20:30
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguzatena 30: 20:00

• **Deadpool 2**

barikua 25: 22:00
zapatua 26: 17:00/22:30
domeka 27: 17:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Heartstone**

zapatua 26: 22:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Deadpool 2**

zapatua 26: 19:30/22:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:15

“Harpa eta honen aitzindaria den kora bihotzaren energia dira; makal zein bizi jo, gozotasuna transmititzen dute”

Kora bere kabuz jotzen ikasi ostean, ibilbide musikala egiten ari da Eneko Larrañaga Enekora proiektuagaz; Musikairen joko du seikoteak, uztailean



Eneko Larrañaga Arrizabalaga
Musikaria eta musika irakaslea

Zestoa | 1982

du; reggae doinuekin askatasuna adierazten da. Kora harparen amama da, sorrera hortik dator. Harpa bihotzaren energia da; makal edo bizi jo, gozotasuna transmititzen du; horren ondorioz, kantuen tematikak bihotzekoak dira, maitasunezkoak, eskerrak ematekoak. Gai unibertsalak dira.

Musika irakaslea ere bazara.

Hiru urte daramatzat Elorrion bizitzen, eta oso gustura nago. Azpeitian gitarra irakasten nuen aurretik. Pasioagaz egiten dudan beste gauzetako bat da, izan ere, jendea transmititzea asko gustatzen zait. Bi gauzatxo eginez disfrutatu egiten nuen, eta hirugarrena ikasiz gero, flipatu egiten nuen. Hori transmititu gura dut, bidaia horretan disfrutatu egin behar dela. Gaur egun, kora, gitarra, baxu eta ukelele klaseak ematen ditut.

Ipurtarina izaten jarraitzen duzu, beraz.

Musika pasioz bizi dut, eta egun nire ogibidea ere bada. Ez da erraza, eta gauza ezberdinak egiten jakin behar da. Maisua izatea eta tailerretan aritzea asko gustatzen zait, eta kontzertuak ematea, zer esanik ez.

'Elorriotik Mundura, Mundutik Elorriora' dokumentalaren aurkezpenean jo zenuen. Balio du musikak instrumentu integratzaile legez?

Mugak errealak ez direla erakusten duen adibide bat gara gu. Zestoar bat, zuria, kora jotzen duena, eta euskaraz eta afrikarrez abesten duena. Harrigarria da nahaste hau, bertakoentzat zein kanpokoentzat. Guztiok harritzen gara, eta mugarik ez dagoela adierazten du. Bakoitzak bere gaitasunak ditu; nirea musika da, eta hori da gizarteari egin diezaiokedan ekarpena. Hori da politena, bakoitzak bere alea eskaintzea gizartea hobetzeko.

Eta hemendik aurrera?

Esperimentatzen jarraituko dut. Bestalde, disko hau zuzenean ahalik eta gehien aurkeztea gustatuko litzaidake. Bideo paisajistikoekin laguntzen dugu emanaldia, gainera. Hainbat bider jo dugu jada, eta jendeak eskertzen du. Ikusten du mimoz eginda dagoela ikuskizuna. Uztailearen 29an Elorrion joko dugu, Musikaire jaialdiaren baitan.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Aitor anaiaren gitarra elektrikoa hartu zuenetik, etengabeko ikasketak prozesu batean murgildu da Eneko Larrañaga. Bidaia horretan, hainbat bide musikala urratu ditu. 2007an kora erosi zuen, urtebete lehenago instrumentua deskubritu ostean. Bakarka lehenbizi, taldean ostean, instrumentuan murgiltzen joan da urte hauetan. 'Maitatzea Nahiago' bigarren diskoa kaleratu du Elorrion bizi den zestoarrak.

Zerk bultzatu zintuen kora jotzera?

Ttakunpa taldeagaz nembilela, 2006an, Gironara (Herrialde Katalanak) joan ginen. Han ikusi eta entzun nuen kora lehenbizikoz. Txundituta geratu nintzen. Gitarragaz nire kabuz egin dut ia guztia, eta kora jotzen moldatuko nintzela ikusten nuenez, bat erosi eta nire kabuz abestiak sortzen eta tradizioa ikertzen hasi nintzen.

Banaka hasi ostean, seikotea da orain 'Enekora'.

2013an nire lehenbiziko lana grabatu nuen, *Kora Izpiak*; guztia neuk grabatu nuen. Grabaketa zein zuzenekoak intimistak ziren, lasaiak, baina, gerora, taldea osatzeko go-goia izan nuen. Orain seikotea gara eta oso gustura nago. Kantuei bizitasuna eman die aldaketak, eta horren fruitua da bigarren disko hau. Afrikatik beste mundu batzuetara goaz: Kubako Guaguanco erritmoak daude, melodia arabiarak, erritmika funky eta modernistagoa... Prozesu bat egon da taldea

“**Ez dago gauzak egiteko modu bakarra; sorkuntzan bihotzak agintzen duena egin behar da**”

handitzeagaz, eta kantuen alaitasunean igartzen da hori.

Doinu aldaketa nabarmentzen da abestietan.

Musikari moduan, inoiz ez dut mugarik eduki; autodidakta eta inprobisatzailea izan naiz beti. Ez dago gauzak egiteko modu bakarra, eta erritmoak eta doinuak ez dira estilo zehatz batekoak. Nire ustez, sorkuntzan bihotzak agintzen duena egin behar da, sentitzen den eta konbentzitzen zaituen zerbait egin behar da.

Euskaraz abesten duzu.

Zestoarra eta euskalduna izanik, argi nuen. Beste hizkuntza batzuk ere sartzen ditugu abesti batzuetan, baina, azken finean, norberaren hizkuntzagaz lortzen den adierazkortasuna ez da lortzen besteekin. Hala ere, ez dut mugarik. Horrela, gainera, oso kurioso geratzen da jendearentzat, ez delako euskal estilo tipikoa. Jendeak euskara entzuten du, baina ukitu afrikarraz. Ni oso melodikoa naiz, kantuari

Eneko Larrañaga Kora eskuetan duela.

forma eman ostean sartzen ditut hitzak. Inprobisazio lanketa bat egiten dut ahotsagaz, jorratzen dugun estilora egokitzen dena; melodia eta silabak horrela sartzen ditut. Estiloaren forma mantentzerakoan, gehiago kostatzen da, baina oso polita geratzen da, estilora gehiago hurbiltzen da eta.

Euskaraz abesten duzu, batez ere. Zeri buruzkoak dira hitzak?

Instrumentu bakoitzak gauza bat transmititzen du. Horrela, perkusio afrikarrak indarra transmititzen

“**Gaur egun, kora, gitarra, baxu eta ukelele klaseak ematen ditut, Elorrion bertan**”

Elorriarren obrak erakusten dituen lehenbiziko erakusketa kolektiboa antolatu du udalak

Ane Amesti, Nieves Medela, Eli Villar eta Jesus Urrutia elorriarren lanak maiatzaren 27ra arte egongo dira ikusgai

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Elorrioko zenbait artistaren lanak ezagutarazteko asmoz, diziplina ezberdinetako lau elorriarren lanak ikusgai daude Iturri kultur etxean. Diziplinetan zein adinean, ezberdintasunak nabariak dira lau artisten artean, eta horrek aberastu egiten du erakusketa. Ane Amesti da artistarik gazteena. 30 urteko gazteak litografia eta xilografia obrak erakutsiko ditu. Mexikon ikasi zituen teknika hauek; bidaiatzen ari zela, hilabete igaro zuen Oaxacan ikasten. Orain Bilbon ari da teknika horiek garatzen, eta ikasitakoa erakutsi gura izan du erakusketan. "Ondo egongo litzateke Elorrioren edo Durangaldean horrelako zerbait egiteko aukera edukitzea", adierazi du Amestik. Nieves Medelak, berriz, urteak daramatza margotzen: olioagaz marrazten du. Eskulan elkarteko lehendakaria da bera, eta mihisean olioagaz eginiko lanak ditu ikusgai Iturrin. Bestalde, Jesus Urrutiak argizariz margotutako artelanak ditu erakusgai.

Eli Villarrek, ostera, ikus-entzuzko obrak jorratzen ditu. Lan bi aurkeztu ditu erakusketa honetan, eta biekin hausnarketa eragin gura du. "Arte garaikidearen klabea egin dut lan. Obra biekin zenbait ikuspunturi buruzko hausnarketa



Lau elorriarren lanak erakusten ditu erakusketa kolektiboak

egitera gonbidatzen dut ikuslea", adierazi du elorriarrak.

"Bidea egiten laguntzeko"

Villarren ustetan, erakusketa hau pauso bat izan daiteke etorkizunean jende gehiago animatzeko. "Artista isolatuaren mitoa gainditu behar da, eta artisten sarea josi; Elorrioren artista asko dago, eta guztion lanak jendaurrean erakusteko aukera izan dadila hau". Erakusketa



ANE AMESTI

"Ondo egongo litzateke Elorrioren litografia ikasteko aukera eduki ahal izatea"



ELI VILLAR

"Elorrioren artista ugari dago; guztion lanak jendaurrean erakusteko aukera izan dadila"

Jesus Urrutiaren koadernoak, argizariz eginiko marrazkien bilduma

Jesus Urrutia oso pozik dago bere lanak erakusteko aukera duelako. Zaharren egoitzako bere lagunak ere Iturrira joan dira egunotan, eta horrek ere asko poztu du. Urrutiak pintatzen igarotzen du eguna, goiz eta arratsalde, egoitzan duen mahaian. Argizariz eginiko margoekin koadernoak betetzen ditu, eta horietako bat ikusgai dago Iturri kultur etxean. Hain zuzen ere, koadernoak bere osotasunean erakusteko balio erantsia zuela uste zuten antolatzaileek. Elorriarren lanak erakusteko asmoagaz antolatu du udalak erakusketa kolektiboa, eta etorkizunean horrelako gehiago egiteko aukera aztertzen ari dira.

kolektibo honen bidez, elorriarren obrak ikusgai egin gura izan ditu udalak. "Herrian modalitate ezberdinetako artistak ditugu, eta beraien lanak erakusteko leku eder bat ere bai, beraz, logikoa iruditzen zitzaigun biak uztartzea. Modu horretan, herriko artistei euren bidea egiten laguntzen diegu", adierazi du Maitane Lopez kultura arloko zinegotziak. Erakusketa maiatzaren 27ra arte egongo da ikusgai, 21:00ak arte.

Zuzendari berriagaz lehenengo kontzertua eskainiko dute Tabira musika bandako eta Durangoko Orfeoiko kideek

Domekan, 13:00etan, 'Taupadak' lana plazaratuko dute Andra Mariko elizpean

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domekan, maiatzak 27, Tabira Musika bandak, Durangoko Orfeoia eta Nerea Zarandona soinu-joleak *Taupadak* lana plazaratuko dute. Kontzertua 13:00etan hasiko da, Andra Mariko elizpean.

Zuzendari lanetan Luis Orduña arituko da; lehenengo aldia izango da Orduñak Tabira musika banda eta Durangoko Orfeoia batera zuzentzen dituen.

Tabira musika bandakoek jakitera eman dutenez, *Taupadak*

"ikuskitzen kementsua" da, melodia "ederrak" eta erritmika "bizkorrak" uztartzen dituen. Gainera, kontzertuan euskal folkloreak kanta herrikoiak ikuspegi "berri" eta "liluragarri" batetik entzuteko aukera egongo dela jakitera eman dute.



Musika banda, Orfeoia eta Zarandona elkarregaz arituko dira.

Heriotza bikoitza
Ze Onda Antzerki Taldea
Maiatzak 25, barikua
20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Londako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jateitea@plateruena.net

Ekainak 1 - 20:00etan
MICHAEL RELOADED
Kontzertua

Ekainak 8 - 22:00etan
ORION CHILD + TAKEN + INCURSED
Kontzertua

Ekainak 9 - 20:00etan
NOE ETA ASIER
Dantza

Mallabiko Jasokunde abesbatzak emanaldi berezi batez ospatuko du 25 urteko ibilbidea

Zapatuan, maiatzak 26, emanaldia eskainiko du abesbatzak; 18 kantu aukeratu dituzte kontzerturako, eta dantzariak, trikitilariak eta pianista batek ere parte hartuko dute

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Gaztetxoaren artean abestea sustatzeko asmoz, Mari Carmen Solozabalek eta Arrate Arrietak Jasokunde korua sortu zuten orain 25 urte; euren alabak bertan apuntatu zituzten, eta kantuan irakatsi zieten. Egindako beharrari esker, hogeita hamar lagunek izena ematea lortu zuten. Orain hogeita bost urte eman zituen abesbatzak lehen-

biziko pauso horiek, eta orain, urtemuga ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Jasokundeko kideek. Asteazkenean zehar argazki erakusketa egon da Kontzejuzarrean, ibilbidearen nondik norakoak biltzen dituen 200 bat argazkigaz; besteak beste, ikus-entzunezkoak, hasierako jantziak eta kontzertuak iragartzeko kartelak ere egon dira ikusgai. Mende laurden honetan,

Arratsaldeko 20:00etan hasiko da emanaldia; euskal kantak izango dira kontzertuaren ardatza

Mallabiarrek bizirik dute koroko kideak Oh Happy Day lehiaketan parte hartu zutenekoa

bost zuzendari eduki ditu Jasokundek: Maritxu Roteta, Agurtzane Mentxaka, Uxue Alonso, Esther Hernandez eta Iratxe Uribebarrea. Azken hau 2004az geroztik da zuzendaria. Urteotan, 70 lagun inguru igaro dira abesbatzatik; ospakizun jaia parte-hartzaileagoa egiteko asmoz, Txoria Txori guztien artean abesteko asmoa agertu dute taldekideek, eta kide izandakoei animatzeko deia egin diete. Zapatuan, 18 abestiko emanaldi berezia eskainiko du Jasokundek. Trikitilariak, dantzariak eta pianista bat ere egongo dira. Herriko beste abesbatza biek ere parte hartuko dute.

'Oh Happy Day'ren ospea

Urte hauetan zehar, hamaika ekitalditan egon da Jasokunde, eta, besteak beste, Benito Lertxundi eta Pantxoa eta Peiogaz partekatu dute oholtza; Mikel Laboaren omenaldian ere parte hartu zuten. Berezi, baina, telebistako 'Oh Happy Day' saio entzutetsuan parte hartu zuteneko garaia oroitzen dute. "Herria irauli egin zen gugaz, eta finala, adibidez, zuzenean ikusi ahal izan zen pantaila erraldoian; Mallabira itzuli ginenean, sekulako harrera egin ziguten", gogoratu dute kideek. Hamaika lagunek osatzen dute gaur egun abesbatza, eta taldea sasoiko dagoen arren, abesteko gogoia duena parte hartzerantz animatzen dute.



Azken hiru urteak elkarrengaz igaro dituzte Jasokundeko kideek, eta talde egonkorra osatu dute.

Eneko Sagardoyren 'Heriotza Bikoitza' Durangora iritsi da

ANTZERKIA • A.M.

Eneko Sagardoyren eta Miren Gaztañagaren *Heriotza Bikoitza* antzez-lana ikusgai egongo da gaur, barikua, San Agustin kulturgunean. Jon Ander Alonsok zuzentzen du obra eta heriotza du ardatz. Iazko neguan estreinatuta zuten obra, eta ordutik emanaldi batzuk eskaini

ditu produkzioak. Hari narratibo definiturik barik, Eneko Sagardoyren eta Miren Gaztañagaren arteko elkarrizketak dira obraren osagai nagusia. Horrez gainera, heriotzagaz gertuko esperientziak izan dituzten hainbat pertsonen testigantza ere proiektatuko dituzte antzezlanean, obra ospatzeko.



Eneko Sagardoy eta Miren Gaztañaga dira protagonistak.

Geure Durangaldea

Garazi Mugarza Markina Erizaina



Armak

Hormigoizko eraikinak eze-rez, garrasiak, hauts eta ke beltzak eta garrasiak, tankeak eta garrasiak, pneumatikoak sutan eta garrasiak eta harriak eta garrasiak eta jende zauritua zauritua goak korrika aterperatzen eta garrasiak eta hilotzak eta minak. Eta, artean, Estatu Batuak harro Jerusalem enbaxada inauguratzen.

Gero eta minago zait munduaren kontzientzia, nahiago nuke arrotz egingo balitzait. Zoritxarrez asko du eraso, zauri eta oinazetik, eta ez ziren ez esajeratzen ari mundu hau latza dela ziotenak. Nakba da. Nakba da hondamena, ez-beharra, zorigaitza. Nakba da deskalabrua. Nakba da Israel sortuz geroztik zazpi hamarkadaz erbestean izatea.

Seguraski ez naiz hilaren hamalauko sarraskiarekin amesgaiztotan ibili den bakarra izango. Pentsa ze beldur sorlezakeen aurrerantzean egun argirik itzartuko den jakin gabe bizi beharrak; pentsa zer sentitzen ote den arriskutsua denean norbere etxean gordetzea ere. Israelek berrogeita hamabost palestinar hil zituen Gazan eta beste milaka zauritu, egun bakarrean.

Eta gu, kulpak propio ezkutatu eta huskeriak erabat hipertrofiatu zaleak garenok, ernegatu egiten gara herri oso bat espetxeratu ezin eta erail beharra duela publikoki aitortzen duenaren odol izotzarekin. Baina guk ere, ordea, zibilizatu eta aurrerakoiok, badugu erantzukizunik gerra horretan. Errealitatea ikusi eta berriz begiak ixtea erabaki duena baino itsuagorik ez omen dago eta, aizue, ahazten bazaigu ere, armak geureak dira.

guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze-lan elektromekanikoa

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Web Aplikazioen Garapena
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa (2. maila)

AURREMATRIKULA:
Ekainaren 4tik 15era

Markina-Xemein (Bizkaia) • 94 616 90 02 • info@leartik.eus • www.leartik.eus

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Faseko azken saioa jokatuko dute zapatuan

BERTSOLARITZA • A.M.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Faseko azken saioa zapatu honetan jokatuko dute, Abadiñon. Matienako Errota kultur etxean izango da saioa, 17:30ean. Arkaitz Zipitria, Asier Urkiza, Eneko Arrate, Gurutz Uruburu, Ibon Larrazabal eta Mikel Aiertzaguena bertsolariak arituko dira kantuan.

Fase honen ostean, udazkenea etorriko da; 30 bertsolarik parte hartuko dute hor. Udaba-

rriko Fasetik sailkaturikoek eta 2014ko finalista izan zirenek edukiko dute abesteko aukera; 2016ko txapelketako finalistek, ostera, finalaurrekoetan hasiko dute txapelketa. Apirilaren 14an hasi zen Udabarriko Fasea, eta ia 80 bertsolarik parte hartu dute fase honetan; horietako hogeitahiruk, lehenbizikoz.

Sarriugarte, bigarren

Areatzako kanporaketan, Gari-koitz Sarriugarte zaldibartarrak

162,5 puntu lortu zituen, eta bigarren sailkatu zen. Ander Ucelay artzentalestarrak irabazi zuen saioa, 169,5 puntu eskuratuta. Regueibertso ekimenaren barruan izan zen sailkapen saioa, udal-terreko areto nagusian. Asteburuko beste kanporaketa Erandion izan zen, eta han Eneko Barruetabeña durangar gazteak abestu zuen. 136,5 puntugaz, seigarren amaitu zuen. Kanporaketa Julen Erezuma gernikarrak irabazi zuen, 173,5 puntugaz.



Gari-koitz Sarriugarte, Areatzako saioan.

Osasun gida

anboto

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometriari teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboak.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA
GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa
Kiroprodia, onikopatia, alteraziodermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



Iratxe Moreno Gonzalez
Eibar futbol taldeko jokalaria.
Abadiño | 1994

“Baloi bategaz hazi naiz eta Eibar futbol taldean jokatzera ikaragarria da niretzat”

Bigarren Mailan hirugarren denboraldia egin du Iratxe Moreno atezain abadiñarrak Eibar Futbol Klubagaz

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Txikitatik futboleantzatzen dabil Iratxe Moreno abadiñarra. Mutilekin jokalaria moduan hasi zen, eta gaur egun Eibar Futbol Klub taldeko atezaina da.

Asteburuan Euskal Kopako partidua izan duzue Athleticen kontra, eta porrotak kopatik kanpo utzi zaituzte. Hamabosgarren minuturako lehenengo gola sartu ziguten eta horrek motibazio gutxiagaz utzi zuen taldea. Ezinezkoa egin zitzaigun horri buelta ematea. Gainera, behin Athleticen gola sartuta, oso zaila izaten da haiei aurre egitea.

Beraz, esperotako emaitza izan zen? Egia esan, esperantza handia geneukan. Ligako partiduan berdindu egin genuen, eta gogotsu geunden. Gainera, berdinketa behar genuen sailkapen fasea igarotzeko. Baina ezinezkoa izan zen.

Hirugarren postuan amaitu duzue denboraldia. Urte hasieran, horrelako denboraldia egingo zenutela uste zenuten?

Ez, nik neuk imajinatu ere ez nuen egiten. Taldea ikusi eta entrenatzen hasi ginenean, sailkapenean erdi inguruan ibiliko ginela uste nuen. Mailari eusteko borrokan ere ibili gintezkeela pentsatzen nuen. Bai-

na, begira, orain itzelezko taldea daukagu, giro ezin hobea dugu eta entrenatzaileak lan izugarria egin du gugaz. Gainera, momenturen batean liga irabazteagaz ere amestu dugula esan dezaket.

Aurten talde gaztea izan duzue. Horrek etorkizun hurbil batean zuen helburua, mailaz igotzea, lortzeko esperantza ematen dizue?

Datorren urtean taldea oraindik hobea izango da, ziur nago. Aurten egin dugun denboraldiagaz eta eman dugun irudi onagaz, Eibarrek emakumezko taldearen alde ere egingo du apustu eta horrek indarberritu egingo du taldea.

Orain lau urte Bigarren Mailara igotzea lortu zenuten, eta azken hiru denboraldietan maila horretan zaudete. Nolako urteak izan dira?

Lehenengo urtea oso gogorra izan zen. Partidu bat geneukan bakoitzean, nora goaz, zer egiten dugu hemen... eta halako galderak egiten genizkion geure buruari. Lehen urte hartan, mailaz ez jaisteko borrokan ibili ginen. Hala ere, denboraldi polita egin genuen.

Hurrengo urtean pauso bat aurrera eman genuen, eta oso ondo aritu ginen. Aurten, berriz, hirugarren postua lortu dugu. Hau guztia entrenatzaile berriari eta egin du-

gun taldeari esker egin dugu.

Dagoeneko mailan egonkortuta zaudete. Datorren urtean Lehen Mailara igotzeko borrokatuko zarete?

Hasieran, Bigarren Maila oso gogorra izan zen guretzat, eta maila horri eusteko borrokatu ginen. Datorren denboraldiko helburua, berriz, argia izango da: Lehen Mailara igotzeko borrokan aritzea. Hala ere, denok dakigu zaila izango dela helburua lortzea.

Nola gogoratzen duzue Euskal Kopatik igo zineten momentua?

Izugarria izan zen, oso polita. Mutilek liga irabazi eta Lehen Mailarako

“**Aurten egin dugun denboraldiagaz, Eibarrek emakumezko taldearen aldeko apustua egingo du”**

—
“**Hasieran, Bigarren Maila oso gogorra izan zen guretzat, eta mailari eusteko borrokatu ginen”**

igoera lortuko balute bezalakoa. Eibarren omenaldia egin ziguten San Juan jaietan. Gainera, kamioi batean atera gintuzten eta herri-tarrek harrera itzela egin ziguten. Inoiz ahaztuko ez dudana uena izango da.

Ipuruan ere jokatu duzue. Zer sentitzen da bertan jokatzeko?

Ipuruan jokatzera itzela izan zen. Aldagelak, zelaia... dena da izugarria. Bertan egon ginenean, guk horrelako zerbait noiz izango dugun pentsatzen egon nintzen. Hau ere ez dut inoiz ahaztuko.

Bederatzi urte daramatzazu Eibarren. Taldean gustura zauden seinala.

Eibarren oso pozik nago, bai. Futbola dena da niretzat, txikitatik dudana hobby bat. Baloi bategaz hazi naiz, eta Eibar taldean jokatzera ikaragarria da niretzat. Hala ere, talde honetan egotea ardurua handia ere bada.

Zer eman dizue Eibarrek?

Eibarri esker jende berria ezagutu dut eta lagun asko egin ditut. Horrez gain, pertsonalki ere asko lagundu dit.

Zure hasierako urteetara begiratzen badugu, jokalaria moduan jokatzeko zenuen lehenengo, eta gero hasi zinen atezain.

Neskato askoren moduan, mutilekin hasi nintzen futboleantzatzen. Baina, garai hartan, atezain faltan geunden, eta sarritan neu jartzen nintzen atezain. Batzuetan jokalaria moduan aritzen nintzen, eta beste batzuetan, atezain. Gero, Matienan nesken futbol taldea sortu genuen eta bertan jokalaria moduan nabilen, baina Abadiño-taldean ere. Partidu batzuetan atezain postuan jokatu nuen, baina gehienbat jokalaria aritu nintzen.

Jokalaria moduan ere bazenuen talentua. Pentsatu duzu inoiz atezaina beharrean jokalaria bazina non egongo zinatekeen?

Askotan pasatu izan zait burutik. Hamabi urteagaz Bizkaiko selekzioan nabilen eta Euskadikoan sartzekotan egon nintzen. Gainera, Eibarko koordinatzaileak jokalaria moduan fitxatu gura ninduen, eta gero atezain hasi nintzen.

Beraz, Eibarko atezaina beharrean, jokalaria izan behar zinen?

Eibarren jokalaria nintzela uste zuten, eta lehen entrenamendura eskularruekin agertu nintzenean denak harriduta gelditu ziren. Baina atezain ikusi nindutenean, postu hori niretzat izango zela esan zidaten.

Ardura handia da Bigarren Mailako talde batean atezaina izatea?

Talde guztietako atezainek ardurua handia izaten dute. Kontuan hartu behar da guk ezin dugula hutsegiterik egin, guk kale egiten badugu gola sartuko digute eta. Beraz, berdina da ze mailatan egon. Atezain batek gura duen gauza bakarria da bere atea ondo zaintzea eta partidua ondo irtezea.

Esan didatenez, Abadiñon ez zaizu jarraitzailerik falta.

Egia esan, lagunak asko animatzen naute. Partiduetara sarritan etortzen ez diren arren, beti animatzen naute eta hori pozgarria da niretzat. Esaterako, taldeak bideo bat egin zigun aurreko astebururako, eta nire lagunak ere bideo bat grabatu zuten animoak ematen. Ikaragarria izan zen niretzat.

Joan zen asteburuan gizonetako denboraldia amaitu zen, eta zuen taldekideek, Eibarreko, bederatzigarren amaitu dute liga. Euskal talderik onena izan da, gainera.

Denboraldi oso ona egin dute eta ondo aritu dira. Guk hirugarren postuan amaitu dugu, baina badakigu haien lorpenak oihartzun handiagoa izango duela. Gainera, aitortu behar dut ni Athleticen jarraitzaile sutsua naizela, eta beti izango naizela.

Zornotza saskibaloi taldea ezin izan da Zilarrezko Ligara itzuli lehenengo saiakeran

Menorcaren kontra igoera faseko finala galdua, pauso batera geratu da iaz galdutako maila berreskuratzeko

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Erakundeen eta federazioaren erabaki polemikoen ondorioz, Zornotza saskibaloi taldea EBA Mailara jaitsi zen iaz. Bulegoetan galdutakoa kantxan berreskuratzeko zorian izan dira aurten, baina lehenengo saiakerak ez du espero zen saririk ekarri.

Joan zen asteburuan igoera fasea jokatu zuten Menorcan. Benidorm eta Jaen taldeak menderatuta, finalera heldu ziren. Pauso batera

zuten Zilarrezko Liga. Baina egoera berean zegoen Menorca taldea eta irletakoek lortu zuten pauso desiratu hori ematea.

Helmuga berbertan zutela, berriro hasierako puntura itzuli dira. Kolpe gogorra da, baina altxatzea eta borrokan jarraitzea beste biderik ez zaie geratzen. "Harro gaude talde honetaz, harro zaleez, harro gure herriaz eta koloreez", mezua helarazi du Joxe Etxeberrria klubeko presidentek.



Aurtengo denboraldian 35 partidutik 32 irabazi ditu Zornotza Saskibaloi Taldeak.

Amanda Spratt australiarrak ausart jokatura irabazi du Emakumeen Bira

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Ustekabeko amaiera izan du XXXI. Emakumeen Birak. Iurretako azken etapan, martitzenean, Urkiola mendateak aldeak markatuko zituela aurreikusten zen, baina inork ez zuen espero eguneko protagonista Amanda Spratt (Sidney, Australia, 1997) izatea, etapa hasi aurretik hamargarren zegoelako sailkapen nagusian, liderrarengandik minutu eta erdira. Urkiola gaina bakarrik igaro zuen eta handik helmugarako 50 kilometroetan ezin izan zuten harrapatu. Erakustaldia eskaini zuen.



Amanda Spratt podiumean, Mitchelton Scott taldeko taldekideekin batera.

Igo gura badu, gol bat sartzera behartuta dago Kulturala

Bigarren B Mailara igotzeko itzuliko neurketa jokatu du domekan, 12:00etan, Cuencako futbol-zelaian

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturala Bigarren B Mailara igo daiteke domekan. Conquenseren eta Durangoko taldearen arteko neurketa 12:00etan hasiko da, Cuencako La Fuensanta futbol-zelaian.

Igor Nuñezen mutilak gutxienez gol bat sartzera beharturik daude. Izan ere, joan zen asteburuan Tabiran jokatuako partiduan bana berdindu zuten eta

kanpoan sartutako golek bikoitza balio dute berdinketen kasuan.

Conquensek talde serioa dela erakutsi zuen Durangon. Hala ere, Kulturala ez zen aurkaria baino gutxiago izan. Ekain Zenitagoiak sartu zuen etxekon gola, penalti baten bidez. Cuencako taldearen gola kórner batetik heldu zen. Azpimarratzekoa da Tabirako harmailek erakutsi zuten itxura. Lepo bete zen futbol-zelaia.

Asteko kirolaria



OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR

Abadiño, 1981

Arredondo herrian (Kantabria) jokatuak kilometro bertikalen Espainiako txapelketa emankorra izan da eskualdeko korrikalarien-

"Espainiako koloreek ez naute ordezkatzeko; horregatik esan diot ezetz selekzioari"

Espainiako txapelketa irabazita, munduko txapelketan parte hartzeko aukera zuen

tzat. Oihana Azkorbebeitiak irabazi egin du eta Aitor Ajuria otxandiarra hirugarren izan da juniorretan.

Zelan joan zen lasterketa?

Ez nuen ibilbidea ezagutzen. Esana zidaten oso gogorra zela eta horrelakoxea egin zitzaidan: gogor-gogorra. 1.000 metroko desnibela 2,7 kilometrotan igotzen da. Anbotokoan, esaterako, 3,8 kilometrotan igotzen da desnibel hori.

Irabazteko helburuz joan zinen?

Ni ez naiz helburu konkretuekin joaten lasterketetara, eta ibilbidea ezagutzen ez badut, are gutxiago. Ahalik eta ondoen egin gura nuen. Irteera puntuan, parte-hartzaileen erdiak ez nituen ezagutzen. Maria Zorroaren erreferentzia nuen. Iaz bigarren egin zuen, 43 minutuko denboragaz. Baina nire atzetik irten zenez, ezin izan nuen erreferentzia moduan hartu.

Espainiako txapeldun geratuta, munduko txapelketan parte hartzeko aukera zenuen Espainiako selekzioagaz, baina uko egin zenion.

Lasterketa irabazita, banekien eskubide hori nuela. Izan ere, tontoretik Aitziber Ibarbia korrikariagaz jaitsi nintzen eta abisatu zidan Espainiako federazioko norbait etorriko zitzaidala hori esaten. Ibarbiak orain hiru urte irabazi zuen txapelketa. Berak ezetz esan

zuen orduan, eta nik berdina egin dut. Espainiako koloreek ez naute ordezkatzeko; horregatik esan diot ezetz selekzioari. Podiumera ere ikurrina handi batez igotzen. Orain arte ikurrinagaz edo Kataluniako esteladagaz igotzen naiz podiumera, beraz ez dut uste nire erabakiak ezustean harrapatuko zuenik federazioko ordezkaria.

Asteburuan Zegama-Aizkorri lasterketan parte hartuko duzu. Zer esperantzazagaz zoaz?

Gogo itzela dut lasterketarako. Iaz bero handia egin zuen. Aurten freskoago egingo duela uste dut, eta hori askoz hobea da niretzat. Postuak ez dit hainbeste arduratu, baina iazko denboretan ibiltzea dut helburu [4.47.38].

TAEKWONDOA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Kong We gimnasioan Koreako taekwondo arte martziala eta Hapkido izeneko defentsa pertsonalerako teknikak erakusten ditu. 35 urte daramatza jardunbide horretan Fernandezek. Makina bat ikasleri gerriko beltza lortzen lagundu die, baina bene-benetan asebetetzen duena ez da hori, alde humanotik eskaini ahal dien laguntza baino.

Bilboko Miribillan eman zizuten domina. Zelan gogoratzen duzu eguna?

Euskadiko txapelketa baten barruan izan zen. Ilusioa egin zidan, jakina, baina, egia esanda, ilusio handiagoa egin zidan orain hiru urte eman zidaten brontzezkoak, lehenengoa zelako. Cartagenan (Valentzia) izan zen, Espainiako txapelketa batean. Poz ikaragarria eman zidan nitaz gogoratu izanak. Nire kirol ibilbideari egindako errekonozimendua zela sentitu nuen.

Zein izan da zure kirol ibilbideko lorpenik handiena?

1976an eta 1977an Euskadiko txapelketak irabazi nituen. Ondorioz, Espainiako txapelketa bitan parte hartu nuen. Ciudad Realen jokatu-takoan laugarren geratu nintzen. Tira, sekula ez naiz izan fenomeno bat. 1984an gimnasio hau jarri nuen martxan, irakastea asko gusatzen zitzaidan eta.

Orduko txapelketak, zelakoak ziren?

Askoz gogorragoak. KO-rako borrokak ziren, eta ez genuen buruko babesik janzten. Gorputzekoak ere xumeagoak ziren.

“**Domina nire kirol ibilbideari egindako errekonozimendua zela sentitu nuen eta ilusioa egin zidan**”

Nork irakatsi zizun?

Koreako maisu bat izan nuen Bilbon. Borrokako teknikez gainera, bere inguruko filosofia eta antzerakoak ikasi gura nituen. Horregatik jo nuen korear batengana, taekwondo hangoa delako. Baina Koreako armadako kapitaina izana zen eta oso zorrotza zen, zorrotzegia. Eta

“Ikasleak borrokalaria onak baino, pertsona onak izatea gura dut”

Taekwondo federazioak kirol merituaeren zilarrezko domina eman dio Jokin Fernandezi



Jokin Fernandez Agudelo
Kong We gimnasioko arduraduna
Zornotza | 1956

izaera aldetik ez zen eredu garria. Nik ez dut nire gimnasioa bere irakaspenean gainean eraiki.

62 urte gaz jubilazioan pentsatzen ari zara?

Ez dakit, ba! Apurka gerrikoak lortzen ari diren gazteei gerriko beltza hartu arte lagundu gura nieke. Ez nituzke bide erdian utzi gura. Momentuz, ez dut erretiratzeko asmorik. Seme-alabek beste bide batzuk hartu dituzte... Nire erreleboa hartzeko norbait aukeratzen dudanean, ez da edonor izango. Nire filosofia berdinagaz jarraituko duela seguru nagoen bat izango da.

Ogibide bat baino gehiago da?

Nire bizitza da. Eta makina bat arazo eramaten ditut etxera. Gaztetxo batzuek izaera gatazkatsua dute eta

laguntzen saiatzen naiz. Gogoan dut Europa ekialdeko gazte baten kasua. Umezaro zaila izan zuen, umezurtegi batetik zetorren. Lagundu egin genion eta gaur egun mutil zoragarria da. Sarritan txarto pasatzen dut horrelako kasuekin, baina eskaintzen diozun laguntzak fruituak ematen dituela ikustea pozgarria da.

“**Euskadiko txapelketan gero eta gazte gutxiago dabilta; gimnasioen artean inbidia daude, botere borrokak**”

Beraz, dena ez da borrokarako teknikak erakustea.

Ikasleak borrokalaria onak baino, pertsona onak izan daitezten gura dut. Kirolari hobeak edo txarragoak direla? Barru-barruan hori ez da gehien inporta zaidana. Askori umetatik erakutsi diet, eta orain nagusitan kalean ikusten ditudanean, nirekiko estimu hori sumatzen dut. Hori ordainezina da.

Zelakoa da taekwondoaren egoera gaur egun?

Gero eta gazte gutxiagok parte hartzen dute Euskadiko txapelketan eta penagarria da. Ez dakit seguru zergatik gertatzen den. Gimnasioen artean inbidia daude, botere borrokak. Ni ez naiz horrelako kontuetan nahasten.

Adituaren txokoa

Juan Carlos Perez Villumbrales
Areto-futbola

**Argi-ilunak**

Amaitu da denboraldia eta Bizkaiko areto-futbolari dudaz beteriko etorkizuna ikusten diot. Taldeak desagertzen ari dira eta lehiatzeko baldintzak gero eta gogorragoak dira.

Durungaldean denetarik izan dugu. Elorriori astunegia egin zaio denboraldia. Lehen itzuli eskasa eginda, jaitsi egin da. Penagarria da. Bigarren itzuliko erreakzioa ez da nahikoa izan mailari eusteko, eta Durungaldeak ez du ordezkariarik izango Brontzeko Ligan.

Sasikoak eta Mallabiak denboraldi diskretua egin dute Hirugarren Mailan. Hurrengo denboraldian talde bi izango ditugu Maila Gorenean, Elorrioko Bk mailari eustea lortu duelako eta Abadiñoko Txopoa maila horretara igo delako. Txopoak mailak eskalatzen darrai. Laster Euskal Ligan talderen bat izan dezake Abadiñok... Mendibeltzek eta Racing Tolostok konplitu egin dute, besterik barik. Gu Lagunak taldeak ere denboraldi diskretua egin du Bigarren Erregionalean. Emakumeetan, Sasikoak denboraldi irregularra izan du.

Eta, azkenerako, onena utzi dut: gazte mailakoen denboraldia. Hasteko, Mendibeltzek Lehen Mailan jokatu du. Behetik goranzko bidea eginda, merezitako igoera lortu du eta Sasikoaren mailara igo da. Sasikoa B taldeko jokalariekin elikatuko da, aurre denboraldi ona osatu dutelako.

Eta zer esan Mallabiko gazteei buruz. Domeka honetan estatuko kategoriarik gorenera igotzeko txapelketa jokatu du Zaldibarren Gipuzkoako eta Arabako txapelkunekin batera. Errekoren denboraldia osatuta, Zierbena boteretsua baino bederatzi puntu gehiagoz amaitu du denboraldia.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194



Etzetresna elektrikoak barne. Argazkiko sukaldeak ez du bat egiten eskaintzarekin. SCHMIDT GROUPE SPAIN Y PORTUGAL, S.L. (CIF B86624665 - Credito foto Atelier MARC BARRAL BARON y Visión

Zure Schmidt sukaldea **6400€**-tik aurrera

Ekainaren 16ra arte

Lurkua

zure poltsikoaren eskura

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SCHMIDT
Sukaldeak eta etxeko altzariak



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Durangaldea. Berriztutako apartamentua salgai Lekeition. Apartamentu eguzkitsua eta xarmaduna. Hiru hondartzetara bistak ditu. Tel.: 656-77 17 32

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Bi logeladun etxe bila nabil Durangon edo Matienan. Lana daukat. Tel.: 632-01 22 61

OPORRETAO ETXEBIZITZAK

OPORRETAO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Calpen apartamentua alokatzen dut, uztailean eta abuztuan. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta terraza ditu. Hondartzatik 100 metrora. Tel.: 655-74 57 97

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK OSTALARITZA

Jatetxeetan lan bila nabil. Jatetxeetan lan bila nabil garbiketa lanak egiten, zerbitzari moduan edo sukaldari laguntzaile lez. Goizez lan egiteko prest. Tel.: 628-46 09 67

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeetako edo tabernetako garbiketa lanak, zein zerbitzari lanak egiten ere. Asteburuetan edo gauz lan egiteko prest. Tel.: 632-57 31 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 632-41 25 57

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 674-40 47 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetako langile moduan. Tel.: 664-89 92 27

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-49 37 58

Arratsaldetarako lan bila.

Esperientzia handiko eta erreferentziadun neska euskalduna arratsaldeetarako lan bila. Umeak zaintzen, etxeko lanetan. Interesa baduzu jarri harremanetan. Tel.: 688640604. Mila esker!

Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan lan bila nabil. Baita zerbitzari edo sukaldari moduan ere. Barneko langilea, gauz, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-38 47 90

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 632-99 90 79

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 610-89 28 39

Tabernetan lan egiteko prest.

Langile euskalduna asteburuetan tabernetan lan egiteko prest. Tel.: 655-73 29 28

Nagusiak zaintzen lan bila nabil. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Tel.: 688-46 74 36

Umeak eta nagusiak zaintzen ditut. Umeak eta nagusiak zaintzeko prest nago, baita garbiketarako eta etxeko zerbitzuetarako ere. Tel.: 698-23 51 57

Pertsonak zaintzen lan bila nabil. Umeak eta nagusiak zaintzeko prest nago, baita garbiketarako eta etxeko zerbitzuetarako ere. Tel.: 698-22 82 70

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia dut okindegietan lanean. Tel.: 605-46 99 89

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita taberna edo atarietako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko zein barneko langilea, gauz zein orduka lan egiteko prest.

Tel.: 682-18 12 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko langilea, gauz, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 690-68 73 95

Lan bila nabil pertsonak zaintzen.

Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil umeak eta nagusiak zaintzen zein garbiketan lanetan. Esperientzia dut. Tel.: 631-70 68 46

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan edo sukaldean ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-13 84 71

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Gizonezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo lorezaintza lanetan. Tel.: 631-10 47 14

Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 699-78 50 85

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan bila nabil. Tel.: 688-26 13 95

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 679-53 01 60

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein ordukako langilea. Tel.: 611-27 44 51

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 610-89 28 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 612-54 09 97

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 632-11 45 93

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo gabeko langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko, ordukako zein asteburuetako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-75 00 80

Umeak edo nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila. Umeak edo nagusiak zaintzen, eta garbiketan ere bai. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziakin. Tel.: 651-50 86 94

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita atari edo tabernetako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko langilea, lanaldi erdian, osoan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-11 06 74

Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atari, etxe, bulego eta tabernetako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko langilea, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-57 59 78 Tel.: 671- 24 79 70

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 688-80 36 02

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Paperak ditut. Tel.: 722-21 38 29

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 632-39 90 79

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 610-89 28 39

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetako langilea, gauz ere lan egiteko prest. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientzia dut, baita

erreferentziak ere. Espainiako baimena. Tel.: 632-10 22 32

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, gauz, edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Eskarmentua dut eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-86 55 26

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. 40 urte baino gehiago dituen emakumezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan, barneko langile moduan. Tel.: 603-68 73 62

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan ere. Tel.: 632-29 16 73

Umeak zaintzen ditut. Irakaslea lan bila dabil umeak zaintzeko. Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrak ematen ditut. Irakaslea lan bila dabil klase partikularrak emateko (ikaslearen etxean) Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Astele nekazaturismo jatetxeak sukaldari laguntzaile behar du. Sukaldari-laguntzaile euskalduna behar dugu gure artean egunero lan egiteko. Interesaturik dagoenak deitu Tel.: 689-80 23 62

LAN ESKAINTZAK PERTSONAK ZAINDU

Zaintzaile behar da. Adineko gizon bat zaintzeko gizon euskalduna behar da. Jardunaldi partziala. 3-4 ordu egunero. Enplegu agentzia: Mimixu. Lekua. Elorrión

KIROLAK

KIROLAK SALDU

Garmin Forerunner 310XT. Hainbat kiroletarako GPS gailua. Korrika / igeri / oinez / triatloi saioak gorde eta entrenamenduak jarraitzeko ordu-laria. Inongo arazorik ez duena. Uhalak berriki aldatuak.

Familia - Etxea

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK SALDU

Hozkailua saltzen dut. Eurotech C558 A+ markako hozkailua salgai. Egoera onean. Prezioa: 100 euro. Tel.: 605-72 73 91

Zorion Agurrak

zorionak@anboto.org · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Nola egiten da kakao hautsa?

Kakao aleak ehota egiten da kakao hautsa. Eho ondoren, aleen batez besteko neurriak ez dira izaten hiru milimetrokoak baino handiagoak. Eho dauden aleei disoluzio alkalino bat ematen zaie, zeinak disolbatu egiten duen kakaoaren gantza tenperatura txikian. Kakao hautsa ez da oso erraz disolbatzen uretan edo esnetan, eta zenbat eta gantz gutxiago izan, orduan eta disolbagarritasun gutxiago izaten du. Kakao hauts hori olio begetalekin nahasten da batzuetan, hain zuzen likidotan hobeto disolbatu dadin. Kakao hautsak kafeina izaten du eta teobromina ere bai. Nagusiki, bi modutan egiten da:

***Broma prozesua (theobromatik dator).** Oso ohikoa da eta zapore mikatzagoa eta azidoagoa izaten du; gehienez, pH txikiagoa eduki ohi du eta kolore argia. Sistema horrekin kalitate oneko produktua lortzen da, batez ere sukaldeko errezetetan erabiltzen dena, sodio bikarbonatoa nahasten zaienetan. Substantzia alkalinoak erabilia, egosaldian ugaritu egiten da nahastura. Gantz edo azukre askoko errezetentzat (adibidez, "brownie"ak egiteko), hobeto etorri ohi da kakao naturala, zapore sendoagoa ematen du eta.

***Herbeheretarren prozesua.** Disolbatzaile alkalino bat eranstean zaio kakaoari. Txokolate mota horrek azidotasun gutxiago izaten du gehienez, ilunagoa izaten da eta zapore leunagoa eduki ohi du. Kakao hori erabiltzen da txokolatezko edari beroa egiteko. Izen ere, kakao mota hori oso ongi nahasten da likidoekin. Prozesu horrek, dena den, desegin egiten ditu kakaoak berez dituen flabonoide antioxidatzaile gehienak.

Alkalinizatzea

Alkalinizatzeke prozesua izaten da substantzia alkalino bat eranstea (adibidez, sodio karbonatoa), eta horrela lortzen da kakao naturalaren antzeko ezaugarriak eta zapore atseginagoa dituen kakao bat.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



Hasi marmitakoa eta cava prestatzen, bagoaz eta. Zorionak, **Julen**, ondo pasa zure eguna.



Abadiñoko **Libe** Etxegaraik 3 urtetxo betetzen ditu gaur, maiatzak 25. Zorionak eta mosu handi handi bat familia guztiaren partez.

Botikak

BARIKUA, 25 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 26 · 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-13:30
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetorretor 2C - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6. - ELORRIO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 27 · 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetorretor 2C - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 28 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 29 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 30 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 31 · 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 24° / 13° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 18° / 15° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 17° / 13° ☁️

DOMEKA 🌡️ 21° / 13° ☁️


MARTITZENA 🌡️ 16° / 14° ☁️

EGUENA 🌡️ 23° / 12° ☁️

ABADIÑO
ERROTA KULTU ETXEA (MATIENA)
MAIATZAK 26
17:30

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Arkaitz Zipitria Mendizabal
Asier Urkiza Sanchez
Eneko Arrate Sololuze
Gurutx Uruburu Ibarguengoitia
Ibon Larrazabal Landa 'Larra'

bbt18
Bizkaiko Barnealari Erakundea 2018



“Komentu batean hunkitu egin ziren anaiak ginela jakitean; lo egiteko lekua egin ziguten”

Donejakue bidea egitea erabaki dute Durangoko Aizpurua anaiak. Bide erdia egin dute, baina Santiago de Compostelarako hurrengo zatia datorren urterako utzi behar izan dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Santiago de Compostelara heldu guran, Donejakue bideari ekin zioten maiatzaren 6an Aizpuru anaiak. Bide erdia egin dute, baina, ezusteko baten eraginez, Durangon egon behar dute datozen egunetan. Datorren urtean ekingo diote bigarren zatiari. Ovidon (Asturias) daudela egin dugu berba Jabier, Joseba, Jon eta Iñaki gatz.

Lau anaiok elkarregaz egin gura izan duzue Donejakue bidea. Nolatan?

Jon: Azken hiruzpalau urteetan, martitzeneko elkartzen gara lau anaiok Abadiñoako Abarketerue- nean bazkaltzeko eta bazkari horietako batean erabaki genuen gazteena jubilatzean Donejakue bidea egingo genuela, elkarregaz. Aurten jubilatuta da Iñaki eta bidea eginen hasi gara.

Ibilbidean ondo konpondu zarete lau anaiok?

Jon: Bueno... izaten ditugu gure liskarrak. Dena ez da idilikoa, baina ondo konpontzen gara.

Joseba: Hala da, bai. Ikusten gaituztenean... esango dute!

Jabier: Neu naiz nagusia, eta dena barkatu beharrean nago baina...

Ovidon harrapatu zaituztegu, bide erdi inguruan.

Iñaki: Bai. Bihar [martitzena] Avilesera (Asturias) joango gara, eta handik Durangora berriro. Datorren urtean iparraldeko bidea hartuko dugu berriro, Avilesen. Badaramatzagu egun batzuk etxetik kanpo!

Jon: Santiagoraino joatea zen asmoa, baina Jabierrek Durangon egon behar du datozen egunetan eta denok bueltatuko gara. Laurok egitea da kontua!

Gogorra ari zaizue egiten?

Jon: Fisikoki, bai. Egunero 20-25 kilometro egin ditugu oinez; inoiz 30

ere bai, eta gogorra egiten da. Baina hori kenduta, oso ondo gabiltza.

Joseba: Nekatuta amaitzen dugu, hankak apur bat kargatuta, baina ondo daramagu. Ez zait horren gogorra egiten ari. Bideari ekin baino urtebete lehenago 10-12 kilometroko bueltak eginen hasi ginen. Horrek ere laguntzen du. Zaindu ere egiten gara, oinetan babarik irten ez dadin, eta oso ondo gabiltza.

Azken urteetan Donejakue bideak jende gehiegi batzen duela diote batzuek.

Joseba: Sasoi honetan oraindik ez dabil horrenbeste jende. Zatiaren batean, akaso... Ekainean hasita batuko da jende gehiago. Gu behintzat oso lasai ibili gara bidea eginen.

Iñaki: Egia esan, ez dugu jende askorik topatu. Gainera, gehienak atzerritarak izan dira: alemanak, ingelesak, frantsesak, errusiarrak...

Eta euskaldunak?

Iñaki: Oso gutxi.

Jon: Llanesen (Asturias) Durangoko Bizidun elkar- teko talde

h a n d i b a t e g a z e l k a r t u g i n e n . E t a p a k a d a b i l t z a h a i e k .

Eguraldia la- gun izan duzue?

Iñaki: Pare bat egunean eurria izan dugu,

baina, bestela, egun ederrak izan ditugu ibiltzeko. Eguraldia nahieran izan dugu!

Denok lehenengoz animatu zarete?

Iñaki: Nik orain zortzi bat urte Hondarribitik Castrorainoko (Kantabria)bidea

egin nuen; enpresan en- plegu-erregu- lazioko espe- dientea

z a b a k t u z u - t e n e t a

animatu egin nintzen. Oraingoan horregatik elkartu naiz anaiekin Castron. Eurek Bilbon ekin zioten, lehenengoz.

Bideak liluratu egiten duela eta bizitzan behin egin beharrekoa dela diote.

Iñaki: Santiagora heltzean esango dizut! Bide erdia falta zaigu.

Jabier: Anaiak ez dira sinesdunak, baina ni bai, eta horregatik esperientzia berezia izaten ari da niretzat. Batzuek promesa bat egin dutelako egiten dute bidea, eskari bat egiteko... baina ez da gure kasua. Laurok egingo dugulako da berezia.

Baduzue pasarterik?

Jon: Laredon (Kantabria) komentu

batean, asko hun- k i t u z i r e n l a u r o k a n a i a k g i n e l a j a k i t e a n , e t a l o e g i t e k o l e k u a e g i n z i g u t e n .



Jabier, Joseba, Jon eta Iñaki Aizpurua

Done Jakue Bidea hasi dute Durango

Lau-hortza

Uxune Martinez Mazaga Soziologoa



Sin mas

Bitxia da zelan ikasten dugun ama hizkuntza eta deigarria da hizkuntza hori zelan baliatzen dugun. Goiz hasten dira umeak hizkuntza erabiltzen. Esaterako, haurtzaroan egiten dituzten keinuak, 11. hilabetetik aurrera egiten dituztenak, hitz egiten hasi aurrekoak, ez dira ausazkoak. Jestu horiek hizkerarekin lotuta daude, ekintza zehatzak adierazteko egiten dituzte: ekarri, eman, hartu... Zeinu kontzientek dira eta hitz egin aurreko etaparen ezaugarri nagusia. Bi urteren bueltan, “hiztegi eztanda” garatzen dute, berba jarria asko ugaritzen zaie, kasu batzuetan hiztontzi ibiltariak bihurtzen dira.

Ez dezagun pentsa ama hizkuntzaren ikasketa prozesua, euskararen kasuan, bestelakoa denik. Ama hizkuntzaren jabekuntzak ildo bertsuak ditu haurtzaroan gainontzeko hizkuntzetan ere. Esaterako, 31 hizkuntzen (euskarra barne) jabekuntza prozesuari buruzko ikerketa batek erakutsi du umeek hurrenkera berean ikasten dituztela kuantifikatzaileen esanahia eta erabilera. Beraz zenbakiak eta ‘guztiak’, ‘bat ere ez’, ‘batzuk’ edota ‘gehienak’ kuantifikatzaileak ordena berdinean ikasten ditu euskaldunak edo ingelesak.

Gizakiok 60.000 hitz erabiltzeko gaitasuna daukagu. Ez da kopuru eskasa, kontua da zelan garatzen dugun gaitasun hori. Txikitan ematen den “hiztegi danbada”ren kontrakoa erakusten dute nerabeek: “hiztegi isila edo murrizta”. Antza, nerabezaroaren ezaugarriak eta teknologia berrien moldeak dira honen erantzule. Agian, hori da arrazoia edozein galdera, egoera edo gertakariren aurrean gure etxeko gazteen erantzuna bakarria izatea beti: “sin mas”. Ulertu nahi nuke 60.000 hitz erabiltzeko gai izanik zergatik moda hau. Beste barik. Barkatu, sin mas.

PAUSOZ PAUSO PODOLOGIA KLINIKA

GURE TRATAMENTUAK:

Kiropodia - Garatxoeren sendaketa - Polimerozko azazkala - Ortonixia
Mikologia azterketa - Exploraketa biomekaniko eta posturala - Plantilak

Monago Torre, 4 beheka - 48200 DURANGO - Tel.: 946 203 630

GOIATZ MURUA
Kol. zbk. 147

AINHOA ELORZA
Kol. zbk. - 238

NEREA RODRIGUEZ
Kol. zbk. - 329